


guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



Irurtzunen San Martin festak bihar eta etzi ospatuko dituzte. Bihar Lizarragako sanmartindarrak / 13

Altsasu bakean uzteko eta faxismoaren kontra mobilizazioak izan ziren asteburuan / 6-7

Urdiaingo Udalak Sanpedroaldeko bidean segurtasuna handitzeko neurriak hartuko ditu / 14

'Moments Camut' ikuskizuna izanen da bihar, azaroaren 10ean, lortia kultur gunean, 19:30ean / 22



Joanes Bakaikoak Promesen mailako Lau t'erdiko finala jokatu du bihar Peña II.arekin / 15



Leku lasaia eta goxoa

'Sakanako liburutegiak, aterpe naturalak' kanpaina egin dute zazpi liburutegik / 2-3



Irurtzungo liburutegiko apaletako liburuak.

Liburutegiak, babestokiak

'Sakanako liburutegiak, aterpe naturalak' kanpaina aurkeztu dute Ziordiko, Olaztiko, Altsasuko, Urdiaingo, Etxarri Aranazko, Arbizuko eta Irurtzungo liburutegiek. Liburutegiak eta natura uztartuko dute. Kultur topalekuak bihurtu dira bibliotekak

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Liburutegiak milaka eta milaka liburu biltzen dituzten tokiak dira. Liburu horiek guztien eskura daude, eta liburutegiaren bazkideek, etxera maileguan har ditzakete. Hainbat dokumentu maileguan hartzeko daude ere: DVDak, diskoak, aldizkariak... Hala ere, azken urteetan liburutegiak liburuak maileguan hartzeko zerbitzu bat baino askoz gehiago bihurtu dira: topaleku bat, lasai egoteko leku bat, bizitza estresagarriaren aurrean erlaxatzeko leku bat...

Lehenengo aldiz Sakanako liburutegiak bildu dira elkarrekin kanpaina bat egiteko; *Sakanako liburutegiak, aterpe naturalak* deitu diote azaroan egingen dute kanpainari. Izan ere, Sakanako liburuzainen esanetan, liburutegiak aterpeak dira: "Kultura sustatzeko leku bat bihurtu da". Liburutegien xedea aldatu da, dagoeneko ez da liburu bat hartu eta irakurtzeko tokia. Askoz gehiago badela diote liburuzainek.

Liburuzainendako kanpaina garrantzitsua da. Lehenengo

aldiz Sakanan kultur proiektu bat elkarrekin egin dute. Ziordiko, Olaztiko, Altsasuko, Urdiaingo, Etxarri Aranazko, Arbizuko eta Irurtzungo liburutegiek bat egin dute *Sakanako liburutegiak, aterpe naturalak* kanpaina egiteko. "Biltzen hasi ginen, elkarri aurpegia jarri genion, eta hutsune bat zegoela konturatu ginen", adierazi du Amaia Iparagirre Ziordiko liburutegiko liburuzainak. Izan ere, bakoitzak bere herrian gauzak antolatzen zituen, baina elkarrekin indartsuagoak izan

zitekeela konturatu ziren. Kirmen Uribe idazlearen iazko emanaldia izan zen lehenengo urratsa.

Biltzen hasi ondoren, elkarrekin joateko Sakanarekin bat egingen zuen gai bat behar zuten. Eta Sakanan naturari buruz hitz egitea egokiena zela iruditu zitzaizen: "pentsatu behar genuen natura eta liburutegiak nola uztartu. Orduan liburutegiak mendiko aterpeak direla metafora hori bururatu zitzaigun". Hortaz, bi ideia batu dira "aterpe naturalak" izendapenean: "alde batetik, aterpe fisikoak dira liburutegiak. Gehien bat neguan, eguraldi txarrarekin, bero eta goxo egoteko lekuak dira. Bestetik, gauza asko daude ikusteko, egiteko eta denbora pasatzeko".

Aterpe naturalak

Natura oinarri hartuta, 25 jarduera, ekimen, ekintza edota tailer egingen dituzte azaroan. *Beltx beheko basoan* album ilustratua izanen da haurrendako tailer guztietako haria. "Bakoitzak bere herrian duen berezitasuna landuko da, esaterako, Ziordian okilak landuko dituzte, Olaztin pagoak, Altsasun anfibioak, Urdiainen haritzak, Etxarri Aranatzen saguzarrak, Arbizun bertako basoak izanen da gaia eta Irurtzunen hegazti-fauna". Igor Erbiti mendi ingeniararen album ilustratua da *Beltx beheko basoan* eta Sakanako haritzen istorioa kontatzen du. Tailerretan ingurugiroa zaintzeko irizpideak eta naturarekiko baloreak landuko dira.

Kanpainaren aurkezpena azaroaren 7an egin zuten, Irurtzungo liburutegian. Aurretik, azaroaren 5etik, Urbarari buruzko pintura erakusketa mustu zuten Olaztin. Gaur, azaroaren 9a, Altsasun, ilustrazio tailerra izanen da Morkotsekin. 18:00etan izanen da tailerra. Hurrengo ekintza Urdiainen eta Etxarri Aranatzen izanen da, 18:00etan eta 19:00etan, hurrenez hurren: Beltxekin Ehun urtetik gorako haritzak landuko dituzte Urdiainen eta Etxarri Aranatzen Jose Luis Erdoziak herriko toponimiaz

hitz egingen du. Azaroaren 15ean haurrendako bi tailer izanen dira Ziordian eta Etxarri Aranatzen. Kanpaina azaroaren 30ean amaituko da Altsasun ekitaldi berezi batekin.

Kultur topagunea

"Babesa behar duzunean liburutegian sartzen zara eta babes hori sentitzen duzu". Denborarekin liburutegien xedea aldatu da. Teknologia berriek eta bizitza estresagarriak zerikuzi handia izan dute, liburuzainen arabera. Sakanako liburuzainak ados daude: "lehen jendea etortzen zen, liburu bat hartzen zuen eta joaten zen. Orain, jendea etortzen da liburutegian lasai egoteko. Babesleku bat da. Denetarik egin daiteke: ikasi, ordenagailuan egon, wifia dago, etxerako lanak egin...".

Liburuen mailegua, beraz, nabarmenki jaitsi da. Hala ere, oraindik maileguak egiten direla azaldu dute liburuzainek. "Liburutegiek edozein tokira bidaiatzeko aukera ematen dute, edozein emozio sentitzeko. Horretarako giltza dago liburutegietan", adierazi du Olatz Millan Arbizuko liburuzainak. Liburutegiak herriko egongelak direla esan zuen altsasuar batek aspaldi, eta Mari Luz Oiarbidek, Altsasuko liburutegiko liburuzainetako batek, ados dago deskripzioarekin.

Duela hainbat urte baino gutxiago irakurtzen dela ondorioztatzen dute liburuzainek. Azken urteetan "estimuluak" areagotu direla esan dute, hortaz, lehen irakurtzen pasatzen zen denbora orain sare sozialetan, telebista ikusten, bideojokoetan eta abarretan inbertitzen dela kritikatu dute liburuzainek. Hala ere, liburutegiak bizirik daude. *Sakanako liburutegiak, aterpe naturalak* kanpaina Facebook-etik eta Instagram-etik jarraitu daiteke. Azaroan egingen duten kanpaina hau aurrera eramateko Nafarroako Gobernuko Liburutegien sarearen laguntza izan dute. Hala ere, aurrera begira kolaborazioak jarraitzea nahi dute liburuzainek.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



5 9000

Etxe pasiboetarako egokia

IKD

Isolamendu nukleo indartsua

STV

Beirak lehorrean jarrita

Aperteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Sakanako aterpeak



Ziordiko liburutegia



1. Amaia Iparraguirre.
2. Laster 18 urte.
3. 1967an sortu zen. Udaletxearen beheko solairuan zegoen. 1993an gora igo zuten.
4. 182 bazkide baino zertxobait gehiago.
5. 18.000 liburu, pelikula, disko... Haietako asko artxi-boan daude.
6. Nobela beltza eta historikoa. Modak jarraitzen dira. Saiazen naiz beste gauza batzuk gomendatzen, baina zaila da.
7. *Beltx beheko basoan* haurrendako album ilustratua, eta mendi eleberriak ere.



Olaztiko liburutegia



1. Eduardo Mayor-domo.
2. Hemen bost urte daramat.
3. 2002. urtean kultur etxera lekualdatu zuten. II. Errepublikari garaitik omen dago.
4. 500 bazkide. Egutero 50 pertsona inguru etortzen da.
5. 13.480 liburu daude, eta 1.340 disko eta DVD.
6. Eleberri beltza eta Euskal Herriaren kokatutakoa. Baztango trilogia, esaterako.
7. Paolo Cognetti idazle italiarraren *Le otto montagne* edo *Zortzi mendiak*. Modan daude naturazko liburuak eta eleberriak.



1. Liburuzaina

2. Noiztik zara liburutegi honen liburuzaina?

3. Noiz sortu zen?

4. Zenbat bazkide ditu?

5. Zenbat liburu daude?

6. Zein generok du arrakasta handien?

7. Naturari buruzko zein liburu gomendatzen duzu?



Altsasuko liburutegia



1. Mari Luz Oiarbide eta Elena Aristorena.
2. Altsasuko liburutegian 1990etik eta 2005etik, hurrenez hurren.
3. 1934an sortu zen. 1984an garbitoki eraikinera lekualdatu zuten eta, 2003an, kultur gunera.
4. 4.600 inguru, biztanlearen erdia baino gehiago.
5. 35.000 dokumentu inguru.
6. Eleberri beltza eta hemen kokatuta dagoena, bidai gidak eta autolaguntzakoak.
7. Nature right gaiarekin lotutakoak modan daude.



Urdiaingeko liburutegia



1. Aitziber Irigoien.
2. 3 urte.
3. 1989an sortu zen.
4. 395 bazkide daude.
5. 7.310 dokumentu daude.
6. Eleberri beltza hartzen da gehien bat eta irakurle nagusienak emakumeak dira. Ez fikzioa liburutegian bertan irakurtzen dute, haurrek zerbait egiten duten bitartean. Modak jarraitzen dira, baita ahoz-ahokoa ere. Batek irakurtzen duenean besteari gomendatzen dio.
7. *El hombre que plantaba árboles*, *El poder del bosque* eta *La poesía de los árboles*.



Etxari Aranazko liburutegia



1. Marta Llorens (Elena Arteta ordezkapena egiten ari da).
3. 1990an udalak sustatu zuen eta 2001an Nafarroako sarean sartu zen.
4. 916 bazkide ditu. Herriarendako oso garrantzitsua da.
5. 5.000 liburu, disko eta DVD.
6. Eleberria (euskaraz eta gaztelaniaz) eta haurrak ipuinak euskaraz.
7. *Maitasun eleberriak irakurtzen zituen agurea*, *Un año en los bosques*, *Paxkalin* eta *Botanicum*.



Arbizuko liburutegia



1. Olatz Millan.
2. 6 hilabete.
3. 2011n sortu zen.
- Herriari galdetu zitzaion ea zer proiektu nahi zuten, eta liburutegia atera zen.
4. 375 izena emanda, baina guraso askok haurraren txartelarekin hartzen dituzte liburuak.
5. 4.044 liburu. Jendeak etxetik ekartzen ditu oraindik.
6. Ez dago patroia bat. Mitxel Murua, Toti Martínez de Lezea eta Jon Arretxe dira gehien irakurtzen direnak.
7. Haurrendako *Serafin* eta *basoko animaliak*.



Irurtzungeko liburutegia



1. Jesus Longas.
2. 3 urte. Ordezkapen bat egiten ari da.
3. 1973an sortu zen eta 2010ean egoitza berrira lekualdatu zuten.
5. 5.000 liburu.
6. Nobedadeak irakurtzen dira gehien bat. Aurten 50 erosi ditugu eta denak mailugan daude. Badira irakurle finak ere, zerbait bereziko bilatzen dutenak.
7. *El ingenio de los pajaros* eta *La vida secreta de los bosques*. Orain modan daude naturaren inguruko liburuak.



ASTEKOA

ZOILA BERASTEGI

Errezeta: Espainia herritarra

Sukaldaritzaren estatusak gorakada nabarmena bizi duen honetan, plater exotikoak, minimalistak eta originalak ikustera ohitzen ari gara, telebistaren pantailatik bada ere. Urrunetik ekarritako osagaiak, platera behar bezala janzteko kolore biziko saltsaren bat, kantitate txikian ongi kolokatutako haragi zatitxo bat belar batean bildua, eskuak prest eta suak bero. Nork dastatzen dituen edota dastatzen ote diren ez dakigun arren, agerikoa da aurkezpenaren garrantzia. Begietatik jaten omen baitugu. Publikoa beraz, ezinbesteko bilakatu da; ez dastatzaile gisa, bai ordea behatzaile lez. Plater baten zapore eta balio nutrizionala "irensten" (sinisten) du, ezertxo ere irentsi gabe.

Baina ez da nire asmoa gaurko zutabea sukaldaritzari eskaintzea. Hotza gurean gustora egoten den arren, asteburu beroa izan da Burunda aldean, eta ez bereziki eguzkia atera delako. Badaude su mantsoan sukaldatzen diren errezetak, eta honako honek lapikoak duela bi urtetik ditu por-por. Pauso-pauso: haragi freskoa, gihartsua, osasuntsua. Libre eta

PUBLIKOA BERAZ, EZINBESTEKO BILAKATU DA; EZ DASTATZAILE GISA, BAI ORDEA BEHATZAILE LEZ

zoriontsu bizi den presaren haragia beti izango da goxoagoa. Posible bada gutxien espero duenean ehizatua. Garai batean grisa zena, orain berdea da. Kanpotik ekarritako berde koloreko belarrek nahastu haragia. Piztu suak, iraganeko

suak bezalaxe; ez dadila memoria ahanzturan erori eta zartatu dadila alboan dagoen guztia. Ezerk ez du inporta eta denak balio du. Gorri eta hori koloreko siropeak emango dio azken ikutua, aurkezpenarako.

Baina ez dago errezetarik sekreturik gabe eta honek ere badu berea: kamarak. Errezetak ez du funtzionatzen ez bada grabatzen. "Zergatik?" galdetuko duzue: hemen sukaldatzen dena, zertxobait urrutixeago irensten delako. Hori bai... dastatu gabe.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoko: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Gozo-gazi

SASOIA JUBILATUEN ELKARTEA

Iraileko azken egunetan idatzi nuen GUAIXEN nire kolaborazioa. Urriaren leian, Adinekoen Nazioarteko eguna ospatzen zenez, aipatzen nuen, egun borobil bat antolatzekeo jubilatuen artean zegoen mugimendua eta konpromisoa, eta hau batasunetik abiatuta. Dirudienez, politikoen artean ere sortu genuen kezka moduko bat.

Beharbada horregatik, eta gure batasuna apurtzeko asmoarekin, proposamen batzuk aurreikusi zizkiguten -KPIaren igoera automatikoa, S.M.I-a 900 euro, gutxieneko pentsioak % 3 igo...-. Ministra ere etorri zen eta egon zen

gure ordezkariekin, baina ez dute lortu, oraingoz, helburu hori. Erkidegoan, urriaren leian egin ziren ekitaldiak arrakastatsuak izan ziren eta ahobatez aldarrikatu ziren urtean zehar aldarrikatzen ditugun eskubideak: Pentsioen Sistema Publikoa bermatu, prekaritatea sortu arazten duten hitzarmen laboralak baliogabetu, 1080 euroko pentsioa, genero arteko arrakala deuseztatu, KPIaren arabera igoerak...

Baina, zoritxarrez, Nafarroari dagokionez, ezin dugu baieztatu horrelako erantzun baikorrik. Ez genuen elkar ulertu, ez ginen konpondu. Manifa jendetsu baten beharrez, bizitasunik gabeko bi egin genituen Iruñean. Akatsak banatu beharrik izango dira taldeen

eta erakundeen artean, baina kaltetuak jubilatukoak, pentsionistok guztiok izan gara. Gure aldarrikapenek ez dute izan merezi eta beharrezkoa duten erantzuna. Gure iritzia, gure ekarpena, apaltasunez egiteko gai ez gara izan eta hau negargarria da zalantzarik gabe.

Ez naiz gertatukoaren errua banatzen hasiko, baina argi utzi nahi dut horrela ez goazela inora. Sinesgaitza egiten zait adin hauetara iritsi eta elkar ulertzeko gai ez izatea, pertsonak baina gehiago balio al du iritziak? Iritziak defendatzeko modu bakarra al dago? Jubilatuen egoerak ez al du merezi beste jarrera bat gure aldetik? Jarreraz aldatzeko inflexio puntua bilakatu dadila urriaren 1an izandako hanka sartzea.

OBJEKTIBOTIK



UTZITAKOIA

Tatuatutako kuia

Altsasuko ferietan ikusitakoa. Zegamatik Altsasuko Gurasoak taldearen postura ekarri zuten kuia landatu

zutenek. Sortu berritan #Altsasukoak ASKE idatzi zioten eta kuia handitu ahala aldarrikapena ere handitu da.

Asteazkenean bi urte beteko dira auzipetuak atxilotu zituztela. Haien askatasuna mila modutara eskatu da

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@komunikazioa.eus

Administratzailea:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maria Luisa Zelaia

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Plastikoak hegan ateratzeari uzteko

Arbizuko hondakindegiko transferentzia gunean atek jarriko dituzte aurki. Horrela haize-egunetan plastikoak hegan ez ateratzea lortu nahi da. Bitartean, hondakinak botatzeko gune berria egiteko lanek aurrera segitzen dute

ARBIZU / SAKANA

Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak ibarrean biltzen dituen ontziak hondakindegian bildu eta gero tratamendu plantara eramaten ditu. Zamalanetako kaian kamioien gabarrak sartu eta bertan hondakinez kargatzen dira. Plastikoen kasuan haizeak eraman egiten ditu eta hori eragozteko kaia erabat itxiko da. Horretarako, egungo eraikinari 102 metro karratuko beste eremu bat gehituko zaio (20,4 m fatxada, 5 m zabal eta 8 metro altu) eta atekin itxeko aukera izanen da. Aurrefabrikatutako hormigoi armatuz eginen da eraikin berria.

Mank-eko presidente David Oroz Alonsok esan digunez, lanak aurki hasiko dira. Lanak Construcciones Lacunza Hermanos SL enpresak eginen du eta horien truke 115.924,51 euro jasoko ditu (BEZ kanpo).

Bitartean, hondakindegian industriako hondakin bizigabe ez arriskutsuak botatzen diren 32.280 m²-ko zatia itxeko lanek aurrera segitzen dute. Hura itxtearekin batera, hondakin mota hori hartzeko 22.000 m² izanen dituen beste zati bat prestatzen ari dira. Han 98.000 m³ hondakin pilatzeko ahalmena izanen da. Zati berri horrek 10 urtez hon-



Arbizuko hondakindegiko transferentzia kaia. ARTXIBOA

dakinak jasotzeko aukera izanen du. Urtero 9.000 m³ jasotzea aurreikusten da. Orozek azaldu digunez, lanak aurrean despedituko dira.

Toki aldaketa

Abiadura Handiko Trenaren balizko ibilbideak Mank-ek eta Nafarroako Hondakin Partzuergoak hondakindegian konpost planta egiteko zuten asmoa aldatu du. Tren azkarraren eraginez, konpost plantarendako leku berri bat opatu behar izan dute bi administrazioek.

Hondakindegia inguruan izanen da hori ere. Baina kokapen berria izatean administrazio truke guztiak berriro hasi behar izan dituzte. "Aurrera doa" esan digu Orozek.

Bitartean, Altsasun eta Zorriandian jartzekoak diren garbiguneen bide administratiboa aurrera segitzen duela jakinarazi digu Orozek. Aurreikusia zegoen ere Hondakin Zerbitzurako kamioi bat erostea, baina erosketak heldu den urtean egiten dela aurreratutako digu Mank-eko buru Orozek.



Parte-hartze prozesuaren bidez aukeratu zuten plaza berria. ARTXIBOA

Parte-hartze prozesuaren inguruko jardunaldiak, Leiztan

Etxarri Aranazko plazaren birmoldatzeko egindako parte-hartze prozesua kontuan izanen da

ETXARRI ARANATZ

Azaroaren 16an, ostiralean, Herriarren parte-hartze buruzko jardunaldiak egiten dira Leiztan, eta landuko diren gaietako bat Etxarri Aranazko plazako birmoldatzeko prozesua izanen da. Leiztan egiten diren jardunaldiak herritarrek erakunde publikoen eta pribatuen kudeaketan parte hartzeak, eta tokian tokiko herritarren parte-hartzean izandako aurrerapenak identifikatzea eta hobetzeko proposamenak jasotzea du helburu.

Etxarri Aranazko egiten den kiosko berriaren proiektua egiteko hainbat batzar egin ziren. Udalak sustatu zuen parte-hartze prozesua eta herritarrek erabakita eguraldi txarra egiten zuenerako estalope finko bat jartzea izan zen gairik zuten proposamena. Proiektua aurrera eramateko ere beste

hainbat batzar egin ziren herrian. Parte-hartze prozesuaren bidez erabaki zen, besteak beste, estalope berria zurez eta metalez egindakoa izanen dela, argia pasatzen utziko zuen materialarekin egina eta jartzeko zuhaitz batzuk kendu beharko zituztela. Baita estalopea kioskorat integratuta egonen zela ere. Hurrengo urratsa estalopearen kokapena erabakitzea izan zen.

Batzarretan parte hartu ezin zuten udalak ekarpenak idatziz egiteko aukera zabaldu zuen. Plazako birmoldatze prozesua, beraz, oinarri eta adibide izanen da Leiztan ospatuko diren Herriarren parte-hartze buruzko jardunaldietan. Eneka Maiz Etxarri Aranazko alkatea bertan izanen da prozesuaren inguruan hitz egiteko, azaroaren 16an, 10:15ean.



107.3 FM
beleixe
guaixe.eus-en ON LINE
Denboraldi berria

Saioa 10:00 – 12:00

10:00 Egun on, prentsa eta eguraldia
10:15 Eguneko agenda
10:20 Albistegia
10:45 Eguneko elkarrizketak
11:15 Sarea: Esan Erran eta Aralar irratiko esatariekin
11:55 Saioaren bukaera

Altsasu bakean uzteko mobilizatuta

Larunbatean 10.600 pertsona izan ziren "Utzi Altsasu bakean" leloa zuen manifestazioan. España Ciudadanaren ekitaldiari erantzuteko bi deialdi izan ziren, herri batzarrarena kultur gunean, antifaxistena plaza inguruan

ALTSASU

Asteburu betea izan zen aurrekoa Altsasun. Ciudadanosen, PPren eta Voxen igandeko bisitak jende askoren artean "Altsasu herriaren erabilera okerra" sentipena eragin zuen. Horregatik, larunbatean, 10.600 pertsonek manifestazioa egin zuten. Akabera salatuz, "herri oso bateko sufrimendua erabili nahi dute haien arteko hauteskunde-lehiarako. Are zikinagoa da jokabidea, gure herria aitzakiatzat hartu nahi dutelako, eskubide eta askatasunen ukaiziorako aitzakia eta sinbolo bilakatu nahi dutelako".

Igandean Altsasuko herri batzarrak erantzuna "herritarra, bateratua, zabala, duina eta bilatzen duten enfrontamendurik gabekoa" eman zuen. Kultur guneko zabalgunean makina bat jende bildu zuen goiz-eguerdiko egitarau zabalarekin.

Altsasu antifaxista herri plataformak hilerrian bildu zuen jendea eta handik plaza alderantz abiatu ziren. Haien helburua plaza inguratzea zen. Baina Foruzaingoak ez ziren nahi beste gerturatzeko utzi. Bisitariak oihera egin eta ekitaldia bitartean ahalik eta zarata gehien egiten saiatu ziren. Egiteko horretan altsasuar guztien harridura "garaiz kanpo" jotako ez-kilarepikak eragin zuen. Foruzaingoak lau gazte identifikatu zituen ez-kiladorean eta Mozal Legean oinarrituta salaketa jarri diete: "zilegi zen manifestazio baten garapenean nahasmena eragitea" egotzi diete, "baldin eta ez bada arau hauste penal bat".

Tentsio unerik handienak bisitariak joan zirenean izan ziren. Altsasuarrek osatutako segurtasun-hesia jendearen eta Guardia Civilen artean jarri zen. Batetik eta bestetik izan ziren oihera eta irainak. Gertakariak alderdien kolore guztietako erreakzioak sortu zituzten.



Igandekoa "Altsasuren kontrako beste eraso bat da, ankerkeria guztiaz egina".



Estatuko bazter guztietatik etorri ziren bisitariak hedabideak erakarri zituzten.



Albert Riverak Guardia Civilaren alde eta abertzaleen kontrako aritu zen.



Altsasu antifaxistak deituta lehenik Amandrea plazara joan ziren.



Antifaxisten asmoa plaza inguratzea zen. Eguerdirako segurtasun hesia eratu zen.



Voxeko eta Nafarroako PPko ordezkariak Foru plazan.



400 bat bisitariak plaza erdia bete zuten.



Plataformaren ekitaldi bitartean plaza inguruan kontzertu ibiltaria izan zen.



Foruzainak plazako ekitaldira inor ez gerturatzeko ardura izan zuen.



Ekitaldiak jakin-mina piztu zuen.



Ekitaldia egiten zen bitartean plaza inguruetatik oihua eta zarata egin zuten.



Bisitariak joan zirenean izan zen tentsio une handiena.



Edozerk balio zuen zarata ateratzeko.



Bisitariak autobusetarako bidean hainbat irudi hartu zituzten.



Xabi Solano eta Fermin Muguruza Iortziako gunean aritu zirenetako batzuk.



Jatekoa egon zen gunean.



La Furia rap kantaria kultur guneko zabalgunean.



Bisitariak joan eta gero batukadak gidatuta Foru plazarrantz abiatu ziren.

Ikusi eguneko laburpenaren bideoa eta gertatu zenaren argazki guztiak: guaixe.eusen kanalean



Gurasoek ostiralean aurkeztu zituzten jardunaldiak. ALTSASU GURASOAK

#AltsasukoakASKE jardunaldiak egingen dira

Hausnarketa jardunaldietan gazteen, gizarte eragileen, hedabideen, juristen eta Europako ikuspegietatik aztertuko da Altsasuko auzia, Iruñean, azaroaren 16an eta 17an. Asteazkenean atxilotetak egin zirela bi urte beteko dira

ALTSASU

Altsasukoak Aske herri asanbladak eta Altsasu Gurasoak-ek, hainbat kolektibo eta pertsonalitate esanguratsuekin batera, #AltsasukoakASKE jardunaldiak prestatu dituzte. “Esparru anitzeko sentsibilitate eta ideologia desberdinetako jendea” izanen da jardunaldietan parte hartuko duena. Guztiek “etorkizunari

begira, 5 ardatzen inguruko hausnarketa eta eztabaida-jardunaldietan parte hartuko dute”.

Aipatu ekimena auzipetueta-koak atxilotu zituztela 2 urte bete eta gero egingen da, Adurrek, Jokinek eta Oihanek espetxean 731 egun preso egin dituztenean eta Aratzek, Iñakik, Jon Anderrek eta Julenek 161 (eta beste 37 2016ko udazkenean). Gurasoen eledun

Bel Pozuetak aurkezpenean esan zuenez, “bi urte-kartzela, injustizia, lana eta borroka. Herri osoa gehiengo sozial batek lagundurik. Elkartasuna handia izan da, izugarria, eta eutsi beharra diogu lanari gure artean izan arte, justiziak etxeratu arte, etxean behar bailukete”.

Antolatzaileek jardunaldietan parte hartzeko gonbidapena egi-

tearekin batera, eskaera luzatu dute: “mobilizatzen jarraitu eta bide gogor honetan gurekin segitu, zuen elkartasunik gabe are gogorragoa izango zatekeen eta, dudarik gabe, izango litzatekeelako. Denon artean lortuko dugu”.

Lauri behin behineko espetxealdia luzatu diete

Gariletik zekiten Adurrek, Jokinek eta Oihanek 6 urteko behin-behineko espetxealdia beteko luketela. Eta preso dauden gainontzeko lau auzipetuei berriki jakinarazi diete, gauzak aldatzen ez badira, zigorraren erdia bete arte behin-behinean preso egon beharko luketela. Hala, Iñakik 5 urte eta Aratzek, Jon Anderrek eta Julenek 4 urte eta erdi egon beharko lukete preso. Udaberriean epaitu zituen Espainiako Auzitegi Nazionalako epaitegiaren erabakia izan da, fiskalak hala eskatuta.

Bi urte bete aurretik behin behinean dauden presoek espetxean segitu behar ote duten aztertzen du epaitegiak. Adurrek, Jokinek eta Oihanek 12 egun barru bi urte egingen dituzte preso. Baina gainontzeko lauek, guztira, 7 hilabete daramate preso. Erabakiaren azkartasunak harritu ditu defentsak eta gurasoak. Erabaki horrekin espetxean preso egotea “nolabait legezta” dute. Epaileek hiru preso altsasuarren behin behineko espetxeratzea garilean luzatzea erabaki zutenean, Amaia Izko abokatuak azaldu zuen epaileek ez zutela kontuan jarri defentsen helegitea. Eta gogorarazi zuenez, “legeak ez du betebeharra ezartzen. Ahalbideratu egiten du”.

Adur eta Iñaki Zaballako espetxera lekualdatu dituzte. Zapiak modulu berean daude.

Txoriak identifikatzen eta erregistratzen ikasteko hitzaldia

Horosti natur zientzi elkarteak hiritar zientziei buruzko jardunaldiak egingen ditu Altsasun. Gaia hegaztiak dira. Hortaz, azaroaren 15ean, ostegunean, ibarreko hegaztiak ezagutzeko saio teorikoa izanen da, 18:00etan, Iortia kultur gunean. Hitzaldi honetan ere hegazti bakoitza aurkitzeko leku egokienei buruz hitz egingen da. 19:00etan eBird web eta aplikazio bidezko plataforma erabiltzen ikasteko saio praktikoa izanen da. Hitzaldiak Gonzalo Deaneke emango ditu.

eBird plataforma hegaztien intereseko lekuak erregistratzeko plataforma bat da. Ornitologoen eta hegazti zaleek haien obserbazioak aplikazioan sartzen ditu, eta ondoren informazio hori besteen eskura gelditzen da. Beraz, hegazti lekuen mapa osatua egiten da.

Azaroaren 17an, larunbatean, 09:30ean, hegaztiak identifikatzeko eta erregistratzeko mendira irteera egingen da, Iortia kultur gunetik.



Juan Jose Aldasoro. UROLAKOSTA HITZA

Aldasoro harategia txorizo egosien txapelketan 3.a

VI. Euskal Herriko txorizo egosien lehiaketa jokatu zen Azpeitian larunbatean. 30 harakinek parte-hartu zuten. Aurreneko 10-12en artean lehia estua izan zen. Txapelketa Legazpiako Javier Vallidok irabazi zuen (53 puntu). Hirugarren postua Altsasuko Aldasoro harategiarendako (47 puntu) izan zen, bosgarrena, berriaz, Olatzagutiko Pako harategiarendako (45 puntu).

Egitaraua

Azaroak 16, ostirala

• **Arratsalde** Gazte taldeek Altsasu auzia delakoa aztertuz eta etorkizunari begira, epe ertain eta luzera nola helduko diote, Katakraken. Gizarte-eragileen mahai-ingurua. Partaideek jendarteak auziari emandako erantzuna eta kaleetan dagoen sentsibilizazioa aztertuko dute, Katakraken.

Azaroak 17, larunbata

• **Goizean** Jurista esanguratsuen auziari buruzko mahai-ingurua: hastapenak, Espainiako Auzitegi Nazionalera bidaltzearen ondorioak, irregulartasunak eta prebentzio-kartzelaren abusua. Jurista esanguratsuek hartuko dute parte. Kazetari ezagunek hedabideek auzia nola jorratu den eta

horren guztiaren ondorioak aztertuko dituzte.

• **Arratsalde** Europar auzia nola lantzen ari den aztertuko dute.

Egitarau osagarria

Gaztelu plazak hainbat dinamika hartuko ditu ostiralean eta larunbatean. Azkeneko bi urteetako informazio-gunea, materiala eta ziega bat

irudikatuko da eta, 12 orduz, hainbat pertsonak okupatuko dute. Bestetik, prozesuaren une garrantzitsuak jasotzen dituen erakusketa batek plazako kioskoa inguratuko du. Ostiral gauean, 2 urtetako irudien proiektzioa eta kontzertua izanen dira. Despeditzeko, larunbatean, 17:00etan, Gaztelu plazan bilkura egingen da, presoaren askatasuna eskatzeko.



Azaroan barna ludotekan argazki erakusketa izanen da. TXANTXARI LUDOTEKA

Txantxari ludotekaren 25. urteurrenerako egitarau zabala

Udal zerbitzuak bere urteurrena haiekin ospatzeko gonbidapena egin du. Azaroa ekintzaz beteta dute

ALTSASU

Txantxari ludotekan pasa den hilabetetik 0 eta 12 urte bitarteko ume eta haurrak dira nagusi. Joxepi Marquinez Arakama ludotekariak hala deskribatu du zerbitzua: "espazio bat da. Bertan, bereziki, jolastu egiten da. Jolasak zer ekartzen du? Haur eta helduen garapenerako aukera bat. Bertan ikasi daiteke. Ongi pasatzeko aukera dago eta ludoteka harremanak egiteko aukera polita ere bada".

Txantxariren 25. denboraldian 97 haurrek eman dute izena oraingo. Izan ere, 35eko taldeak

bete arte izen ematea zabalik dago. 4 eta 7 urte bitarteko taldea asteleheneretan, asteartean eta ostegunetan 17:00etatik 18:30era dago. Asteazkenetan, berriz, 16:00etatik 17:30era. 8 eta 12 urte bitartekoendako txanda da asteartean eta ostegunetan 18:30etik 20:00etara eta ostiraletan 16:00etatik 17:30era. Familiendako saioak heldu batek lagundutako 0 eta 3 urteko haurrendako da asteleheneretan (18:30etik 20:00etara), asteazken eta ostiraletan dira (17:30etik 19:30era), doan. Urteurrenean parte hartzera gonbidatu dute.

Egitaraua

Azaroak 9, ostirala

- 16:00-18:00 Aiton-amonen jolasak ikasteko tailerra.

Azaroaren 12tik 16ra

- Birziklatutako materialarekin jostailu berriak egingo ditugu.

Azaroaren 19tik 23ra

- Jostailu bilketa Altsasuko ikastetxeetan egingen da. Jostailuen truke bale bat jaso, ludotekan beste jostailu batekin trukatzeko.

Azaroak 21, asteazkena

- 19:00 "Jolasaren onurak pertsonaren garapenean" hitzaldia.

Azaroak 22, osteguna

- 18:30 Magia saioa. Familia guztiak gonbidatuta daude.

Azaroak 23, ostirala

- 17:00-19:00 Jostailu trukaketa ludotekan eta tarta dastamena.

Azaroak 27, 29 eta 30

- Scape room Ludotekako 8-12 urtetako saioetan.



Haurrak Olaztiko ludotekaren gelan dantza ikastaroan.

Ludoteka eraberrituta bueltatu da ikasturte hasieran

Eraberritze lanen ondoren, pasa den astean hasi zen ludoteka eta gaur gaztetxokoa. Igogailua jartzea falta da

OLAZTAGUTIA

Joan den asteko asteartean geoztik martxan da Akelarre ludoteka. Udal zerbitzua erabiltzera bueltatu direnak hainbat aldaketa topatu dituzte: komunak egokitu dira, sabaia jaitsi eta ateak gurgildun aukietarako egokitu dira. Txikieria batzuk falta dira despeditzeko. Igogailua jarriko da ere, gaitzagatik edo hezurren bat hautsi dutelako, mugikortasun murriztua duten haurrendako eta ilobak eramatera joaten diren adinduendako.

Akelarre ludoteka 4 eta 12 urte arteko haurrek erabil dezakete. 45ek eman dute izena eta adinaren arabera ordutegi bat izanen dute Akelarre ludotekan. 4 eta 6 urte arteko haurrak astearte eta ostegunetan 16:30etik 18:30era eta asteazkenetan 15:00etatik 16:00etara izanen dira. 7 eta 12 urte bitartekoak, berriz, asteleheneretan, 16:30etik

18:30era, asteazkenetan, 16:00etatik 17:30era, eta ostiraletan, 15:30etik 17:30era, dute Akelarre ludoteka zabalik. Oraindik ere 10 plaza hutsik daude. Aukera hori baliatu nahi duten gurasoek udaletxetik bulego ordutegian pasa daitezke, edo arratsaldez ludoteka beretik.

Gaztetxokoa

Akelarre ludotekak asteburuan ere atak zabalduko ditu. Gaurtik maiatzaren 25era arteko asteburu guztietan ludoteka gaztetxoko bihurtuko da. Han 12 eta 16 urte arteko gaztetxoak egoteko aukera izanen dute: ostiraletan 18:30etik 21:30era, larunbata: 17:00etatik 21:30era eta domekataran 17:00etatik 21:00etara. Dagoeneko 32 gaztetxok eman dute izena, baina eskaini diren 45 plazak bete arte eman daiteke izena udaletxean, astegunetan, 10:00etatik 14:00etara.

ARRUAZUKO OSTATUA ERRENTAN EMATEKO IRAGARKIA

Baldintzen plegua:

Uharte Arakilgo udaletxean dago interesdunen eskura, eta kontratazio-atarian ere bai.

Proposamenak aurkezteko tokia eta epea:

Uharte Arakilgo udaletxean, 2018ko azaroaren 23ko 14:00ak baino lehen.

Uharte Arakilen, 2018ko azaroaren Zan. Peio Betelu Ganboa, Arruazuko Alkate Presidenteak

Arruazuko
Udala



BILTOKI TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Asteleheneretik ostiralera
Eguneko menua
10€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 · Altsasu

Parte-hartze prozesua Bakaikun aurrera

Bihar, 17:30ean, udaletxean egingen den bilera irekita gonbidatu dituzte bakaikuarrak

BAKAIKU

Bakaikuko Udalak herriaren etorkizunaren inguruan aritze-ko parte-hartze prozesua martxan jarri du. *Etorbizuneari zer-nolako herria nahi dugu?* galderari herritar guztien artean erantzun nahi dio prozesuak. Horretarako, lehenik, herriaren diagnosis egin du. Ondoren, 10 urte barru nolako Bakaiku nahi luketen definitu nahi dute. Horretarako hainbat arlotan helburuak jarri nahi dituzte (azpiegiturak, euskara, kultura, parte-hartzea, ingurumena, kirola, ekonomia-garapena...). Horren ondoren lehenetsunak markatuko dituzte eta horiek nola gauzatu landuko dute.

Udaletik jakinarazi dutenez, "bilerak herri guztiari zabalik daude. Mugarik gabe, behar denaz hitz egin, adostu eta erabaki nahi dugu. Bakaikuren oinarriak finkatu nahi ditugu eta, beraz, bilera ahalik eta zabal eta anitzen egitea nahi dugu. Herrian bizi garenon ikuspegi desberdinak beharrezkoak dira". Horregatik, herri guztia gonbidatu dute biharko bilerara. Haurtzaindegi zerbitzua izanen da. Parte-hartze prozesua egiteko EMUN kontratatatu dute, gobernuaren laguntzarekin.





Etxarri Aranatzen zuntz-optiko eskaintza zabaltzen

Etxarriarrek zuntz-optiko bidezko telekomunikazio eskaintza berria izanen dute. Onena enpresa nafarrak eta Adamo telekomunikazio enpresa suediarrek egindako eskaintza hain zuzen ere. Adamo landa guneeetan zuntz optikoa zabaltzen eta kalitate handiko Internet zerbitzuak eskaintzen trebatutako enpresa da. 1.000 Mb-eko arteko abiadura eskaintzen du Adamok eta dioenez, "hori Etxarri Aranazko etxe eta enpresa guztietako gaitasunean eta abiaduran jauzi handia izanen da". Eskaintza horren berri emateko eta dudak argitzeko Onenak azaroak 15erako, osteguna, hitzordua jarri du kultur etxean, 19:00etan. Aurre-ratu dutenez, <https://fiberhood.adamo.es/navarra/etxarri> proiektuan izena ematen dutenek "hasierako sustapen bereziak izateko aukera izanen dute".

Adamorekin batera zuntz-optiko sarea Etxarrin hedatuta dute Telefonicak eta Orange, eta Euskaltelek jarriko du.

Larraza Irurtzongo EH Bilduren alkategaia izanen da berriro

Irurtzongo egungo alkate Aitor Larraza Carrera hurrengo udal hauteskundeetan EH Bilduren Irurtzongo alkategaia izanen da. Hala jakinarazi zuen koalizioak asteartean egin zuen agerraldian. Larraza, Bilduko zinegotzi gisa, udalean 2012ko gari-laren 3an sartu zen. 2015eko hauteskundeetan EH Bilduko zerrendaburu izan zen eta alkateza eskuratu zuen.

Nafarroako presidente gai Barkartxo Ruizek asteartean esan zuenez, "jarraitutasunaren aldeko apustua" egin du Nafarroako EH Bilduk 2019ko maiatzeko udal hauteskundeetarako, "hitzaren zentzurik onenean". Koaliziotik adierazi zuten, "aldaketaren oinarritzko zutabeetako bat bultzada munizipalista da. Behetik gorako aldaketa, herriz herriko aldaketa txikien batuketa herritarrak hobe bizi daitezen". Gaur egun, EH Bilduk Nafarroan 39 alkatetza eta 309 hautetsi ditu. 2015ean 68 hautagaitza izan ziren 2019an gehiago.

Bizimodu berriaren erronkan ez da bakarrik egonen

Hori adierazi nahi diote Hodei Ijurko Irozen lagunek, Etxarri Aranazko gazte asanbladak eta ezker abertzaleak bihar. Horregatik antolatu dute *Itzaletik argira* Ijurkori elkartasuna adierazteko jardunaldia. Gogorazi dute Ijurko irailaren 20an aske gelditu zela 10 urtez preso egon ondoren. "Salbuespeneko espetze politikari aurre egin behar izan dio Hodeik, beti muturreko baldintzetan, beti etxetik urrun. Orain bizimodu berri bat eraiki behar du Hodeik; eta ez da bakarrik egonen".

Egitaraua Karrikestu elkarteak hartuko duen herri bazkari batekin hasiko da, 14:30ean (azken txartelak Leku Ona tabernan salgai). Bazkaloste lizearen ondoren, 20:00etan musika jaialdia izanen da gaztetxean. Arkada, Egurre, Alkaloide, Orangutan Room eta sorpresa den talde bat ariko dira. Guztiak musu truk eta jaialdian lortutako dirua Ijurkori bizimodu berria antolatzen laguntzeko izanen da.

Patata operazioa, ibarreko uzta

Iruñeko Hermanitas de los Pobres kongregazioak Sakanan bildutako 1.300 kilo patata, kuiak, sagarrak, intxaurrek, alubiak eta 139 euro jaso zituzten. Iruñeko Alegria peñako kideek igandean jasotakoa da. 2017an baino gutxiago jaso zuten. "Hala ere, mojak oso pozik zeuden jasotakoarekin". Eskerrak eman zizkieten, "berezi Uharte Arakilgo jubilatutako elkarteari".

2018

Azarokotea

25 urdaiazpiko banatuko ditu Sakanako Dendari Ostalari eta Zerbituzen Elkarteak azaroaren 5tik 30era elkarrean dendetan erosketak egiten dituzten bezeroen artean. Erosketa egiterakoan txartel bat bete beharko da zozketan parte hartzeko. **Informazio guztia: www.sakanakogida.eus gunean**

SAKANAN EROSI ETA URDAIAZPIKO BAT IRABAZI!

AZAROAREN 5ETIK 30ERA 25 URDAIAZPIKO JOKOAN


SAKANAKO
Dendari, Ostalari eta Zerbituzen Elkarteak

ALTSASUN: Allianz Seguros; Asensio Moda; Boutique Ekin; Cafetería Akeita; Calzados Bengoetxea; Aldasoro Harategia; Sorkunde Harategia; Cocinas Santa Cruz; Cortinas Izara; Deportes Intxostia; Deportes Lezea; Electricidad Ramos; Electrodomésticos Ramos; Cristina Janari Denda; Gautxori Taberna; Gertu Sakana Sdad. Coop; Iker Kirolak; Joselen Moda; Joyería Norte; Koxka Taberna; Larka Emakumea / Gizona; Lasa Kirolak; Arkatz Liburudenda; Luresu; Mari Carmen; Marigorri; ML Moda Hombre; ML Moda Mujer; Muebles Santa Cruz; Óptica Sakana; Pinpilipauxa Moda Infantil; Sare Calzados; Tu tienda especial; Txartel; Txikitxo; Xagu informatica; Xume Taberna.

ETXARRIN: Argiro Optika; Barberia Iñaki Ileapaindegia; Comercial Etxarri Muebles Etxarri; Etxarri Hortz Klinika; Hostogorri Altzariak; Kaxeta Liburudenda; Kume; Lizardi; Leku-Ona Taberna; Sabando

LAKUNTZAN: Autoservicio Juncal; Isidoro Arregui Harategia; Tania Arraindegia.

OLAZTIN: Pako Harategia; Farmazia Olatz Etxagibel





Lizarragako hamaikakoaren aurkezpena. TXANE

Lizerratarrek ere Euskaraldian parte hartuko dute

Herriko Euskaraldia batzordetik Ahobizi edo Belarriprest izatera gonbidatu dituzte herritarrak

LIZARRAGA

Euskararen erabilera handitze-ko ariketa Lizarragan egingen da ere. Horretarako lizerratar talde batek batzordea sortu du eta hala nahi duten aldamenekoei izena ematen laguntzen ari zaizkie. Horregatik, Ahobizi eta Belarriprest zer den azaltzen ari dira eta ariketan parte hartzerantz animatu dituzte. 11 egun horietan Ahobizi izatea erabakitzen duenak euskaraz egingen die ulertzen duten guztiei; edonon, edonoz eta ulertzen duen edonorekin arituko zara euskaraz. Ezagutzen ez dituzunekin lehen hitza euskaraz egingen duzu, eta ulertzen baldin badute, hortik aurrerakoak ere bai. Ahobizi izateak ez du euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin zerikusirik, jokaerarekin baizik!

Belarriprestek, berriz, euskaraz dakiten guztiei zuri euskaraz egiteko gonbidapena egingen diete. Euskara ulertzen dutela adieraziko dute eta eurekin euskaraz hitz egin dezatela eskatu. Haiek euskaraz edo erdaraz erantzunen dute, baina eurei euskaraz egiteko eskatuko dute. Belarripresta jokaera bat da.

Egitaraua

Euskaraldikoak lizerratarrekin hizketatzeaz aparte, haiei zuzendutako egitaraua prestatu dute ere. Larunbatean Javi Navarrok euskararen nondik norakoen inguruko hitzaldia eman zuen 50 bat pertsonaren aurrean Azi Iturri elkartearen. Ondoren

merienda izan zen. Hizlariak Jose Navarro eta Mari Lurdes Anduezarekin batera *Lizarraga Ergoienako euskara* liburua argitaratu zuen (2008, Nafar Gob).

Ahobizi eta Belarriprest izanen direnak txapen bidez identifikatuko dira. Txapak azaroaren 18an egingen den ekitaldian banatuko dira. Hura goxatzeko txokolate-jana izanen da. Aldi berean, Lizarragako Euskaraldia batzordeak herritar batek aspaldi euskararen alde sortutako abestia berreskuratuko du eta azaroaren 23an abestuko dute, triki-poteoan ari direla, Euskaraldia hasieran San Klementetan.

Etxarrin gaur azalpenak

Euskaraldian Ahobizi eta Belarriprest izan zaitezke. Jendeari sortu dakizkieken zalantzak argitzeko Etxarriko Euskaraldia taldeak figura horietan sakontzeko saioa antolatu du kultur etxean gaurko, 18:30ean. "Ariketa ondo egiteko, garrantzitsua da Euskaraldia zer den eta gure rolaekin hartu dugun konpromisoa zein den argi izatea. Tarte horretan rol bakoitzaren ezaugarriak azaldu eta egunerokoan topatuko ditugun egoerak landuko ditugu". Beraz, izena eman dutenei saiora joatera gonbidatu dituzte.

EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra



IZEN-EMATEA

www.euskaraldia.eus



euskaltzaleen
topagunea



Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

ADEren merkataritza festa bueltan da

Gaur, 17:00etatik 21:00etara, herrian barna barreatuta dauden dendatan, tabernatan eta kalean ospatuko da. Performancea, haurrendako jolasak, ADEko establezimenduetan produktu dastatzeak, zozketak eta bestelakoak izanen dira

ALTSASU

Hirugarrenez, Altsasuko Dendarien Elkartek (ADE) merkataritza eta ostalaritza festa antolatu du. Aurten dendez aparte Alde Zaharreko lau tabernek ere bat egin dute ospakizunarekin. Irigarri dutenez, 17:00etatik aurrera Altsasutik barna ibiltzen denak aterkiekin egindako performancea opatuko du. Eta ADEko establezimenduetan produktu dastatzeak, zozketak eta bestelakoak izanen dira. Dantza emanaldia ere iragarri dute.

Merkataritza eta ostalaritza festarekin ADEk bertako establezimenduek "hemen gaude" esan eta "herriari ekarpena" egin nahi diote, gaur festarekin, baina urte guztian hainbat ekimenekin eta herritarrei zerbitzua emanez. Gaurko ospakizunak kaleak "herriari bizia emateko, alaitzeko eta bezeroak eskertzeko" da. Azarokotea ere bada ADEko eta Sakanako hainbat establezimenduetatik pasatzeko. Izan ere, haietan azaroan erostekak egiten dituztenak 25 urdaiazpikoren zozketan sartuko dira.

Euritako zerbitzua

Horixe eskainiko dute ADEko 37 dendek eta tabernek asteleheneetik aurrera. Horren berri emanez kartela izanen dute establezimenduek. Bezeroek, bisitariek edo aldamenek euritako horiek edozein momentutan erabiltzeko aukera izanen dute, erostekak egin edo ez, eta dohainik. Baldintza bakarra dago: hartutako euritakoa hartutako establezimendura edo elkarterako beste batera bueltatu behar da. Horrela, aterkia beste batek berrerabiltzeko aukera izanen du.

Euritakoa elementu artistiko izatetik eguraldiagatik udaberriko hainbat aste pasa arte ezinbesteko den elementua izatera pasa da. Altsasuarren ohi-



Joan den urteko Merkataritza festa. ARTXIBOA

ko elementua bihurtuko da, erostekak egiteko beharrezko izanen dena. Gaurko performanceak erabiliko diren 240 euritakoak establezimendu horietan izanen dira. Horiek erosteko udalak 1.100 euro eman ditu.

ADEren logotipoan dauden berde, arrosa eta fuchsia kolorekoak dira aterkiak eta Bizi Altsasu leloa dute, baita elkarteraren, Altsasuko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren logotipoak ere.

III. Merkataritza festako eskaintza

Ordutegia	Non	Zer
17:30-19:30	Foru plaza	Puzgarriak
18:00-20:00	Aldasoro harategia	Landutako produktu dastatzea
17:30-19:30	Larka	Erosteagatik sorpresa eta cava
18:00-20:00	Arkatx liburu-denda	Aurpegi-margotzea, zozketa eta auzatea
19:00-21:00	Gaubori, Lezea, Koxka eta Xume	Pintxo-potea, Trasteandok girotuta
17:30-19:30	Kultur guneko zabalgunea	Balanzabike eta pedaldun kartsak
19:00-20:00	Intxostia zeharbideko denden eskutik	Txotx
17:30-19:30	Altzania kalea	Super Jumping
17:30-19:30	Luresu optika	Krispetak
16:00-17:00	Gertu	Eguzki plakei eta LEDa aldatzeari buruzko tailerrak
19:30	San Juan plaza	Irantzu dantza eskolakoan erakustaldia
20:00	Txikitxo	Ardo eta gazta dastatzea. Argidun puxikak
17:00-20:00	Tu Tienda Especial	Solomo, gazta eta ardo dastatzea
17:00-20:00	Joselen moda	Dastatzea eta zizka-mizka
17:00-20:00	Sare oinetakoak	Dastatzea eta zizka-mizka
19:00-20:00	Asensio Moda	Dastatzea eta zizka-mizka
17:00-20:00	ML Moda	Pasta eta frizzante ardoa



Asteazkenean egin zuten prentsurrekoa. NIE

Oinezkoak euskaltzaleen erantzunarekin "oso pozik"

Urtearen balorazio "oso ona" egin dute. Ikastolan "oinarri-oinarrizko obrak egiteko" izanen dute

BURUNDA

Aurtengo Nafarroa Oinezko antolatzaileek, Iñigo Aritza ikastolakoek, urte guztiko eta festa eguneko balorazioa egiteko prentsa aurrean agerraldia egin dute. Ibai Iriarte San Vicente zuzendariak eta Eneida Carreño Mundiñano presidentek esker oneko hitzak besterik ez dituzte izan: etorri ziren euskaltzaleendako "giro ezin hobe hori bermatu" zutelako eta Iñigo Aritza ikastolako eta Nafarroako ikastolako familiei, "auzolanen egun paregabe hura posible egiteagatik".

Urte guztian antolatutako ekin-tza guztiengatik ere eskerrak eman dituzte: "ederra izan da urtea, bizia izan da, zinez bizia, leloa bezala. Baina Iñigo Aritza Ikastola oso harro dago egin den lanaz. Auzolana eta euskara eskutik joan dira, eta bi horiek dira ikastolen bereizgarri nagusiak". Oinez egunari dagokionez, esan dute "giro paregabea" izan zela, "eguraldi bikaina eta famili giro ederra. Aipagarrien artean, Erronkak mugitu zuen gazte mordoa eta Haurren Hiria, non etxeko txikiak aske ibili ziren". Inklusioa zen Nafarroa Oinez eguneko erronka eta ikastolan "bete dutelako kontent" daude.

Baina antolatzaileen balorazioa ez da guztiz biribila izan, "Mikel gaztearen heriotzagatik egoera oso gogor eta latz bati egin behar izan genion aurre goizean goizetik. Ikastolako kideok minberatuta eta hunkituta geunden.

Baina kasu horretan ere, gure familiek eta oro har Altsasuk erakutsitako duintasuna, gizatasuna eta indarra azpimarratu nahi ditugu". Ziurtatu dutenez, "erantzukizunez, eta maitasunez egin genion aurre eta egun ahaztezin bat burutzea lortu genuen. Egiari zor, lanean geunden Iñigo Aritza Ikastolako kideok ez genuen egunaz gozatu, baina argi dugu Altsasu eredu dela, negu gogorrenari, eta abestiak dioen bezala, txarrenari onena ateraz, zauriari muxu eginez, auzolanaz, inguruaren babesaz, ukendua jarri genion minari, labankada sakon horri".

Ekonomia

Diru balantzea oraindik ez dute itxita, "edonola ere, Nafarroa Oinez urtea ekonomikoki ongi aterako dela aurreikusten dugu, baina egia da ditugun behar guztiak asetzeko adina ez digula emanen". Ikastolako oinarri-oinarrizko obrak egiteko proiektu zehatza erabaki beharko dute orain, "argi izanda ikasleen egunerokoa hobetu behar dela". Horretarako, teiltua berritu eta itajurak konpondu, geletako hezetan eta aireztatze faltari irtenbidea ematea, berogailu sistema eta galdara aldatzea eta irisgarritasuna bermatzea, batez ere ikastolako 2. solairura.

Argia ikastolak hartu du Nafarroa Oinezeko lekukoa eta agendan data bat gordetzeko gonbidapena egin dute: 2019ko lastailaren 20a. *Izan argi!* leloa du Tuterako 4. Oinezak.



Ostiralean hasiko dira lehenengo saioarekin.

Gozamenez programaren eskaintza azaroko ostiraletan

Gazteen artean sexualitatearen ikuspegi positiboa zabaltu nahi duen programak hiru eskaintzarekin

ALTSASU

Esperientzia ludikoen bidez gazteei "gure gorputzak eta zentzumenak plazer iturri eta komunikazio bide direla" azaldu nahi zaie. Udan hainbat igerilekuetan ur festa goxoak izan ziren. Horiek ere Gozamenez programaren barruan. Eta azaroko aurreneko hiru ostiraletan udazkeneko eskaintza berritzen du. 12 urtetik gorakoei zuzendutako eskaintza. Beti ere, helburua garbi izanda: "gazteen sexualitatea ikuspegi positibo, adeitsu, plural eta aberasgarri batetik lantzea". Izan ere, Gozamenez programak "sexualitatearen hainbat alderdiri buruzko hausnarketa eta eztabaida sustatu nahi du gazteen artean nahiz gazteen eta haien bitartekarien artean (familia, ikastetxea, komunikabideak...). Gazteen bizitzan sexualitateak duen tokia agerian utzi nahi du, gune publiko eta ohikoetan".

Egitaraua

Azaroak 9, ostirala

- **17:00etan** Zentzumen-ibilbidea: gynkana, murala eta dastatze beroa, Intxostiapunta gazte gunean.

Azaroak 16, ostirala

- **22:30** entzumen gaua: Alicate, la gramola del amor (antzerki eta musika ikuskizuna), Haritza tabernan.

Azaroak 23, ostirala

- **21:45** Zine foruma: Con amor Simon filma (16 urtetik gorakoendako) eta ondoren foruma Bel Pozueta sexologoak gidatuko du.

Lizarragako sanmartindarren ospakizuna bihar

Sanmigeldarren txanda pasa ondoren, Lizarragako San Martin kofradiak bere eguna ospatuko du bihar. Ohitura denez, 10:00ak aldera gosaltzera elkartuko dira. Tripotak izanen dira mahaian, besteak beste. Hangoak egin eta gero, elizara joan kandelak piztu eta haiekin oinez San Martin ermitarantz abiatuko dira, Irurako bidean barna.

Behin ermitara iritsita, eguerdian, meza izanen da. Eraikina elizkizunerako behar bezala egoteko herenegun garbitu zuten.

Behin ermitakoak despedituta, sanmartindarrak kofradiaren kontuak eta kideen altak eta bajak egunean jartzeko elkartuko dira. Kofradeek dagokiena pagatuko dute eta diru-kontuak despedituta, atzera ere, mahaira eseriko dira, majo bazkaltzeko. Bazkaldu ondoren musikak giroa alaituko du. Hura isiltzean bukatuko da ospakizuna.

Asteburu bete festa izanen da Irurtzunen

San Martin ospakizunak larunbatean eta igandean ospatuko dira. Garai batean orain ziren Irurtzongo festak, patriari eskainitako ospakizunak. Eguraldi eta gizarte aldaketengatik Trinitatera aldatu zituzten eta, ondoren, garileko 3. asteazkenera

IRURTZUN

Musika, jan-edanak eta konpainia ederra. Horrekin nahikoa da festa ospatzeko. Eta horrelako ezer ez da faltako Irurtzunen asteburuan. Haurrendako eskaintza, erraldioen eta buruhandien konpartsaren urteko azken irteera, gozogintza lehiaketa, bazkari-afariak, dantzaldiak, karta lehiaketak eta beste. Halako eskaintzarekin osatu dute egitaraua Irurtzongo Kultur Kontseiluak eta udalak. Gainera, igandean, 26 artisau bilduko dituen azoka izanen da. Haiekin batera Irurtzongo Euskaraldia taldeko kideak informazioa ematen izanen dira.



Joan den urteko artisau azoka. ARTXIBOA

Egitaraua

Azaroak 10, larunbata

- **17:30** 3ZP4 ikuskizuna kiroldegian. Antolatzailea: Pikuxar euskal txokoa.
- **18:30** Gozogintza txapelketa eta dastatzea. Gozoak Erga Larrea elkartearen 18:00etan aurkeztu behar dira..
- **19:00-22:00** Dantzaldia Ken Bat taldearekin.
- **23:30** Gazte music dj-k, barazki gunean.

Azaroak 11, igandea

- **10:00** Dianak.
- **10:30-14:30** Artisautza azoka.
- **11:30** Erraldioen eta buruhandien konpartsaren kalejira.
- **13:00** Zozketa, bi txerrikume, jubilatuek elkartearen.
- **14:15** Jubilatuen bazkaria. Ondoren dantzaldia.

- **16:30** Mus txapelketa Iratxo elkartearen. 16:00etan zabalduko da izen ematea.
- **18:00-20:00** Xaibor disko-festa.
- **19:00** Haurrendako txokolatjana.
- **20:15** Zezensuzkoa.

Artisau azokako parte-hartzaileak

- JA Recalde, zura, Irurtzun.
- Mieltxo Saralegi, taloak, Irurtzun.
- Sanu, Senegalgo artisautza, Irurtzun.
- Brun Forjak, forjaketa, Izurdiaga.
- Maria Esparza, bitxigintza, Izurdiaga.
- Marino, ezitia, Iruña.
- Argia Badago, beira, Irun.
- Josthari, ehungintza, Gartzaron.
- Letzaeta, ogia, Lezaeta.
- A. Beunza, kaikuak, Gerendiain.
- Geisha, urregintza, Donostia.
- Izaskun Robledo, txotxongiloak, Salditse.
- A. Calvo, bitxigintza, Aizarotz.
- Maia Hernandez, zumea, Ibero.
- L. Ortiz, buzingintza, Gasteiz.
- Juan Bermejo, zura, Zarrantz.
- Zurlan, karameluz estalitako haziak, Lasarte.
- Sojonatura, ukenduak, Lekunberri.
- Itsarria, bitxigintza, Berdun.
- C. Aramendia, gazta, Altsasu.
- Mañeko, gozogintza, Maiabia.
- C. Baos, buztin likidoa, Burlata.
- Artilezko Hodeia, artilea, Aizarotz.
- El Hada Blanca, bitxigintza, Rasal.
- Zabaleta Ahizpak, eskulanak, Alli-Arrutiz.
- Txapoteando tailerra, sormen tailerra, Sarriguren.

Eta esnatu gara!



107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus



San Pedrorako bidean jendea paseatzen. ARTXIBOA

Sanpedroaldeko bidean neurriak hartuko ditu Urdiaingo Udalak

San Pedrorako bidean hainbat neurri hartuko ditu trafiko segurtasuna handitu eta arriskua saihesteko

URDIAIN

Lastailaren 21eko istripuak ondorio oso larriak izan zituen. Baina Urdia in eta San Pedro ermita lotzen dituen bidean urtetan eskapada handiak izan dira Altsasutik bueltan etortzen zirenen artean. Gainera, "bide horretara rallyak egitera propio etortzen dira. Haiendako arriskua da, baita handik paseatzen eta bizikletan ibiltzen diren guztientako ere". David Oroz Urdiaingo alkatearen azalpena da.

Azken ezbeharraren ondoren, udalak neurriren bat hartuko duen galdetuta, baietz esan digu alkateak: "bagenuen buruan bide horretan segurtasun neurriak hartzea. Hitz-egina genuen, baina beti diru falta zegoen. Bitartean, Mikelandako berandu da".

Orozek esan digunez, heldu den urterako diru sail bat bideratuko dute. Alde batetik, ibai eta trenbide gaineko zubietako

hesiak berritu eta indartu nahi dituzte. Hesi ereduak begira dabilta udal ordezkariak. Baina, horrekin batera, seinaleztapena indartuko dute. Gainera, ibilgailuen abiadura moteltzeko zoruan hainbat altura duten oztopoak jarriko dituzte.

Bentatik San Pedro ermitara 3 bat km-ko distantzia dago. Eta km bat gehiago Urriztin dauden igerilekuetaraino. Zatiirik handiena hariztian egiten du. Zuzen-guneak eta bihurtzeak ditu. Zuhaitzen itzalarekin hezetasuna asfaltoan mantendu egiten da. Horri bidean egon daitekeen orbela edo lokatza gehitu behar zaizkio, bidea arriskutsu bihurtzen dutenak. Udalak bidearen hainbat tokitako aldeetan obra hondakinak bota zituen. Horrela, alde batetik, bidearen ezkereskuin plataformak sortu zituen, bidearen segurtasuna handituz, eta aparkaleku gisa erabiltzeko.

Sakanako lau gazta munduko gazta onenen artean

Bergen (Norvegia) ospatu da 31. Munduko Gazta Sariketa, munduko gazta onenen txapelketa nagusia. Hainbat kontinentetako 41 herrialdeetako 3.500 gaztek parte hartu zuten lehiaketan. Horiek guztiak epaitzeko 29 herrialdeetako 250 epaile zeuden. Eta haiek erabaki dute Euskal Herriko 66 gazta nabarmentzea. Artzai-gazta eta Idia-

zabal jatorri izendapeneko gaztek urrezko 13 domina, 23 zilarrezko eta 19 brontzezko eskuratu dituzte.

Urrezko domina eskuratu dutenen artean dago Unanuko Balda-Artola y otros gaztandegia. Zilarrezko beste bat ere lortu du Berian markako gaztak. Zilarrezko dominak jaso dituzte ere Arbizuko Araña-Etaioren Juananeko Borda gazta eta Etxarri Aranazo Julen Karasatorrek eta Nerea Luis lakuntzarraren June gazta.

Memoria eta buru arintasuna lantzera

Zahartze aktiboa sustatzeko tailerrean izena ematea azaroaren 12ra arte egin daiteke

ETXARRI ARANATZ

Gaur egungo gizartean gero eta bizi itxaropen handiagoa dugula jabetuta, Etxarri Aranazko Udalak zahartze aktiboa lantzeko proiektuak sutatu nahi ditu herriko adineko pertsonen artean. Adinduek bizi-kalitatea izateko hainbat lan-ildo lantzea komeni dela uste dute udalean. Horregatik, "zahartze aktiboa" sustatzeko adinduendako tailerra antolatu du. Haren helburua da "bizitzako etapa hori osasunez eta bizi kalitate onarekin bizitzea". 65 urtetik gorakoei zuzendutako ikastaroa da.

Udaletik jakinarazi dutenez, tailerra heldu den ostegunean hasiko da eta apirilaren 16an bukatuko da. Astearteetan eta ostegunetan izanen da, 11:00etatik 13:00etara, kultur etxeko bigarren solairuko Txagorri gelan. Guztira bi orduko 35 saioz osatuko da tailerra; 70 orduko iraupena izanen du tailerrak. Talde bakoitza zortzi eta hamar pertsona artean izanen dituela gatzigatu dute udaletik.

Helburuak

Etxarri Aranazko Udalak antolatutako tailer horren helburuak honakoak dira: autonomia funtzionala sustatzea eta hari eustea; norberaren nortasuna eta autoestimua bultzatzea; errendimendu kognitiboa optimizatzea, pertsona bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartzea; norberaren ezaugarriak bertute bihurtzea, bakoitzaren gaitasunak bultzatuz, autoestimua indartzeko; buru-gaitasunak sustatzea eta haiei eustea; ingurunekiko loturak haustea ekiditea eta inguruko harremanak indartzea.

Horretarako, memoria, orientazioa, hizkuntza, konzentrazioa, kalkulua, gimnasia egokitua, sozialitatea, ingurunearekiko harremana, sormena, dibertsioa eta osasuna landuko dituzte.



Joanes Bakaikoa eta Peña II.ak asteazkenean aukeratu zuten materiala, Labriten. ASEGARCE

"Lau t'erdian iniziatiba hartzen duenak, asko du egina"

JOANES BAKAIKOA SATRUSTEGI PILOTARIA

PILOTA Promesen Lau T'erdiko finala jokatu du aurrelari etxarriarrak bihar, larunbatean, Peña II.aren kontra, Iruñeko Labriten, (17:00, ETB1)

Maidar Betelu ETXARRI ARANATZ

Bihar, larunbatean, Iruñeko Labriten 17:00etan hasiko den jaialdian, Promesen Mailako Lau T'erdiko finala jokatu du Joanes Bakaikoa Satrustegik (1997-03-27, Etxarri Aranatz) Asegarcere bere taldekide Jon Ander Peña (1997-07-18), Peña II.aren kontra. Partida zuzenean ikusteko aukera izango da ETB1 telebista katetik. Asteazkeneko pilota aukeraketaren ondoren egon ginen sentsazio oso onak dituen etxarriarrarekin.

Bi urteko epean promesen mailako hirugarren finala duzu biharkoa. Ohitzen ari zara finaletan egote horretan?

Ohitu ez da inoiz egiten, baina urte nahiko ona daramadala esan daiteke.

"GALDU EDO IRABAZI, OSPATZEKO ETA DISFRUTATZEKO EGUNA IZANGO DA BIHARKOA"

Jakina; iaz debutatu zenuen Asegarcerekin, Promesetako Lau T'erdiko txapeldunordea izan zinen eta aurten Promesen Buruz Buruko txapelduna zara eta orain Promesen Lau T'erdiko finala jokatu duzu... Ilbeltzean bi urte egingo ditu debutatu nuela eta nik uste dut urte honetan aurrera pausua eman dudala. Urte ona egin dudala esango nuke, emaitzak ere onak izan dira eta ez dut arazo larririk izan eskutatik; fisikoki ere ongi ibili naiz, gustura. Balorazio ona da.

Larunbateko finalerako pilotak aukeratu dituzue zuk eta Jon Ander Peñak. Zer moduz joan da?

Normaltasunez. Promozio mailan bakarrik finaletan egiten da aukeraketa. Pilota nahiko onak ziren, inongo aitzakiarik gabeak eta, beraz, inolako arazorik gabe. Niri gustatzen zaizkit azkar xarrak baina lurrean ibiltzen diren pilotak, azpitik ibiltzen direnak, buelo asko hartzen ez dutenak. Ez direnak biziak baina motelegiak ere ez. Eta aurkitu ditut; txapelketa guztian izan dira pilota egokiak, exagerazio gabekoak.

Nola ikusten duzu Jon Ander Peña?

Abiadura handia ematen dio pilotari, bi eskuarekin saiatzen da ahalik eta azkarren jokatzeko eta dezente arriskatu du; erritmo handia sartzen dio partidari eta tanto azkarrak egiten saiatzen da.

Berari aurre egiteko nola planteatu duzu zure jokoa?

Lau T'erdian garrantzitsua izaten da ekimena edo iniziatiba hartzea; iniziatiba hartzen duenak asko du egina, asko du irabazia. Saiatuko naiz sakenik dudanean pilotari abiadura handia ematen, piloteoan dominatzen eta defentsako lanetan pilotari altura ematen, nola edo ahala eusten. Baina funtsezkoena, gakoa, iniziatiba hartzea da, nagusitasun hori. Lau T'erdian oso azkar jokatzeko da eta oso garrantzitsua izaten da zuk jokoa agintzea.

Biharko finalean nola espero duzu Labrit egotea?

Nafar batentzat Labriten jokatzeko gauza handia da. Orain arte jokatu ditudan finalak Labriten izan dira eta oso polita da. Jendearentzat frontoi politena da, eta jokatzeko Labrit ere oso frontoi ona da; oso pozik jokatuko dut. Oso frontoi noblea da, ez du bote txarrik egiten, beti bote onak egiten ditu eta ikuslea ere oso gertu dago; hori oso polita da pilotariendako eta ikuslearendako ere. Giro hobereana egoten den pilotalekua da Labrit. **Finalean lasai egotera ohitu egiten da bat edo beti izan behar da urduritasun puntu bat?**

"BI TXAPELAK SAKANARA EKARTZEA OSO POLITA LITZATEKE. ZAILA DEN ARREN, SAIATUKO GARA"

Urduritasun puntu hori beti izan behar da, lasaiegi ateratzea ere ez baita ona izaten. Finaletan denok izaten dugu urduritasun puntu bat eta garrantzitsua izaten da urduritasun hori kontrolatzen saiatzea eta urduritasun horrek zure maila ematera ez egozte.

Hurrengo urtean lehen mailako Buruz Burukoan arituko zara, aurten promesetako irabazi eta gero. Enpresatik puntako pilotariekin programatzeko asmorik azaldu dizute?

Pilotariak bere buruan zentratu beharra dauka, garrantzitsua kantxan ahalik eta hobekien ibiltzea da; ez dizu merezi beste gauzetan zentratzea, horrek ez dizulako laguntzen. Kanpoko gauzei ez zaie begiratu behar, kantxa barruan zentratu beharra dago. Progresio ona daramat, azkeneko urtean batez ere. Oso polita litzateke Promesen Lau T'erdia irabaztea, hurrengo urtean Banakako bi txapelketak, Buruz Buruko eta Lau T'erdia, lehen mailan aritzeko.

Galdu edo irabazi, ospatzeko asmoa duzu?

Bai, ospatuko dut baina oraindik ez dugu guztiz lotu non. Galdu ala irabazi, ospatzeko eta disfrutatzeke eguna izango da larunbatekoa.

Lau T'erdiko lehen mailako finalerako Ezkurdia edo Altuna III.a, nor ikusten duzu favorito?

Nik uste momentu honetan Ezkurdia inoiz egon den momenturik onenean dagoela, eta alde horretatik favoritoxeago ikusten dut. Baina Altuna egun handietan hazi egiten den pilotaria da; orain arte erakutsi du partida garrantzitsuenetan bere mailarik handiena ematen duela. Buruz eta zentratuta jokatzeko baldin badu, nik uste Ezkurdia momentu honetan gehixeago izan daitekeela. Baina egun ez hain ona ez badu, Altunak irabaziko dio. Dena den, une honetan Ezkurdia ikusten dut favoritoago. Finala ikusiko dut, baina ez dakit frontoian bertan edo telebistan. Navarra Arenan ez naiz egon eta frontoi hori ikusteko gogoia daukat.

Handia litzateke zuk eta Ezkurdiak Lau T'erdiko bi txapelak, promesen mailakoa eta lehen mailakoa, Sakanara ekartzea.

Oso polita! Urte gutxitan izaten da dobletea egiteko aukera. Aurten badago, eta zaila dagoen arren, saiatuko gara.



Aurten Mulierren segitzen dute dute Canterok, Cerezok eta Igoak, baina Vilariño Aurrera de Vitoria taldera joan da. ARTXIBOA

Emakumeen 2. mailako futbolariak, topera

FUTBOLA Irati Igoa etxarriarrak, Aroa Cerezo lakuntzarrak eta Ane Cantero altsasuarrak 2. mailako Mulier taldean jarraitzen dute eta Maitane Vilariño olaztiarra Mulierretik 2. mailako Aurrera Vitoria taldera joan da.

Futboleko Emakumezkoen 2. mailan lan handia egiten jarraitzen dute Sakanako futbolariak. Irati Igoa etxarriarrak eta Aroa Cerezo lakuntzarrak aurreko denboraldian debutatu zuten Mulier taldean eta bertan jarraitzen dute, aurretik taldekide zen Ane Cantero altsasuarrarekin batera. Aldiz, aurreko urtean Mulierren ibili zen Maitane Vilariño olaztiarrak atzera ere bere aurreko taldera, Aurrera de Vitoriara jo du.

Irati Igoa aurrelariak azaldu digunez, aurten Emakumezkoen 2. mailari ez dio oso ongi ekin Mulier taldeak. "Gaizki hasi gara baina bagoaz, gutxika goraka. Hurrengo urtean kategoria

berri bat sortu behar dute, eta, horregatik, helburua gutxienez bosgarrenak geratzea da; bestela, ahalik eta goren geratzea" azaldu digu Igoak. Debut bikaina egin zuten Igoak eta Cerezok eta Mulierren partidetak deialdietan ohiko jokalariek dira. Ane Canterok, aldiz, lesionatuta jarraitzen du eta nahiz eta Mulierreko taldekide izan, momentuz ezingo da aritu, dituen arazoak gairatu arte.

Bestalde, Maitane Vilariño olaztiarrak Mulierretik Aurrera de Vitoria taldera egin du aldaketa. Bi taldeak Emakumezkoen 2. mailako 2. multzoan aritzen dira, beraz, aurreko urteko taldekideak aurkari izango dira.

Emakumezkoen 2. maila: Aurrera de Vitoria 6.a eta Mulier 8.a
Emakumezkoen 2. mailako 2. multzoan, 8. jardunaldi jokatu, Deportivo Alaves da liderra (22 puntu). Jokalari sakandarrak dituzten taldeei dagokionez, Aurrera de Vitoria 6.a da (12 puntu) eta Mulier 8.a (9 puntu).

Asteburuko jardunaldiari begira, igandean, Mutiloan, Mulierrek sailkapenean arerio zuzena duen Berriozar taldea hartuko du, 12:30ean. Berriozar 9.a da sailkapenean (7 puntu) eta, beraz, derbia izateaz gain, sailkapeneko postua eusteko partida izango da igandekoa. Aurrera de Vitoriak, aldiz, Oliver taldea hartuko du.

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Zaragozaren kontra ariko da gaur

Aurreko astean Osasuna Magna Xotak Antequeratik 3 puntuak ekartzea nahi zuen, baina, azkenean, puntu batekin konformatu behar izan zuten.

Antequerakoak berehala aurreratu ziren markagailuan. Osasuna Magnakoak saiatu ziren, baina betiko arazoa izan zuten: punteria falta. Azkenean, 3 eta 1 galtzen joatetik hirura berdintzea lortu zuten.

"Bi puntu galdu ditugu" esan zuen partida amaieran Imanol Arregi entrenatzaileak. "Hainbat akats izan ditugu, eta horregatik sartu dizkigute golak. Ongi jokatu dugu eta gol aukera gehiago eta hobeak izan ditugu, baina ez ditugu gauzatu. Lehen mailan ezin ditugu horrenbeste akats izan, eta Antequerak bere gol aukerei etekin gehiago atara die guk baino" gaineratu zuen entrenatzaileak, oso kritikoa.

Gaur Zaragozan

Sailkapen orokorrean Palma Futsalek jarraitzen du lider (21 puntu). Osasuna Magna 10.a da (9 puntu). Gaur, ostiralean, 9 punturekin sailkapenean 10.a den Zaragozaren kontra ariko da Osasuna Magna, 20:45ean, Zaragozan. Puntu berberak dituzte bi taldeek, eta puntuen faltan daude. Hortaz, lehia oso estua izanen da.

SAKANAKO TOPAKETAK

PARTIDUAK

IGANDEAN, LAKUNTZAN

11:00 Tipi Tapa - Lagun Artea

12:15 Lagun Artea 07 - Etxarri Aranatz A

IGANDEAN, URDIAINEN

12:00 Urdiain - Etxarri Aranatz

Sakanako Futbol Topaketak:

Kimuen 2. jardunaldia

Aurreko igandean hasi ziren Sakanako Futbol Topaketak, Dantzalekun. Aipatu Topaketak Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu, Sakanako futbol klub eta taldeen laguntzarekin. Futbola sustatzea da helburua, eta txikienei txapelketa batean parte-hartzea ahalbidertu nahi zaie, baina ez da txapelketa lehiakorra eta, horregatik, ez da sailkapenik egiten. Sakanako futbol taldeen arteko harremanak sustatu nahi dira. Asteburu honetan kimuen mailako 2. jardunaldia jokatu da, Lakuntzan eta Urdiainen.



Lehen garaipena

FUTBOLA Nafarroako Emakumezkoen Futbol 8 taldeko 2. multzoan dabilzan Altsasu taldeko neskek 2 eta 3 irabazi zieten Amaia taldeko neskei, partida zirrargarrian. Sailkapenean Burlades da liderra (6 puntu) eta Altsasu laugarrena da (3 puntu). Bihar, larunbatean, Altsasuko neskek Itaroa Huarte hartuko dute Dantzalekun, 11:45ean.

PREFERENTEA

8. JARDUNALDIKO EMAITZA

Etxarri - Mutilbera 1-2

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Arrotxapea 15

8 Etxarri Aranatz 12

PARTIDUA

LARUNBATEAN

16:00 Lagunak - Etxarri (San Donato)

Etxarri Aranatz, punturik gabe

Etxarri Mutilbera B taldea hartu zuen San Donato zelaian. Mutilbera 1. zatian aurreratu zen, eta 2. zatian bigarren gola sartu zuen. Etxarri behin eta berriz saiatu zen, Goikoetxeak gola sartu zuen, baina, tamalez, ezin izan zuten berdintzea lortu.

ERREGIONALA

9. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lagun Artea - Lagunak 1-1

Altsasu - Aurrera 1-2

SAILKAPENA

ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Lagunak B 21

2 Lagun Artea 20

4 Altsasu 17

PARTIDUAK

LARUNBATEAN

15:45 Aurrera - Lagun Artea (Leiztan)

15:30 Berriozar - Altsasu (Berriozar)

Lagun Artea ez zuen lidergoa eskuratu

Lehen bi taldeak, Lagunak eta Lagun Artea, Lakuntzan lehiatu ziren. Unai Lagun aurreratu zuen 19. minutuan, baina Lagunak-ek berdintzea lortu zuen. Dantzalekun, bestalde, Altsasu ez zen ongi aritu; Patxiri esker Altsasuk berdindu zuen baina Aurrerak bigarrena sartzea lortu zuen.

EMAKUM. ERREGIONALA

8. JARDUNALDIKO EMAITZA

Itaroa Huarte - Altsasu 5-0

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Osasuna 27

9 Altsasu 10

PARTIDUAK

IGANDEAN

15:45 Altsasu - Mulier (Dantzaleku)

Altsasuurrek Mulier hartuko dute

Asteburuan Uhartel Iruñean porrot handia jaso zuten Altsasuko neskek, 5 eta 0 irabazi baitzuten Itaroa Huartek. Igandean egoerari buelta emateko aukera dute gure neskek, sailkapenean seigarrena den Mulier taldea hartuko baitu Altsasuk.



Ezkurdiak eta Altunak hitzordu garrantzitsua dute azaroaren 18an. ASPE

Ezkurdiak Lau t'erdiko finala jokatu du Altunaren kontra

PILOTA Urrutikoetxea eta Bengoetxea VI.a bidean utzi eta gero, azaroaren 18an jokatu dute finala

Lau T'erdiko Lehen Mailako Txapelketako finalerdietan, Mikel Urrutikoetxeari 17 eta 22 irabazi zion Joseba Ezkurdiak.

Arbizuarrak aurretik esana zuen bere jokoa egiten saiatuko zela: sakea aprobeztatu, tantoan erritmoa jarri eta pilota ahalik eta azkarren ibili, besteak beste. Eta horixe bera egin zuen. Horrela, 4 eta 8tik 4 eta 14ra joan zen arbitzuarra, bolea, bi paretak eta sakeei esker. Sakez 5 tanto egin zituen Ezkurdiak, bi, aldiz, Urrutikoetxeak. Bizkaitarrak ez zuen partida galdutzat eman, eta 15 eta 19 gerturatu zen. Ezkurdiak arriskatu zuen eta erritmoa aldatu zion partidari, baina bizkaitarra 17 eta 21 gerturatu zen. Azkenean, bi paretetako sotamano batek eman zion garaipena Arbizuko aurrelariari, urrezko garaipena, azaroaren 18ko Nafarroa Arenako Lau T'erdiko finala jokatzeko ahalbi-

detzen diona. Bukaeran, hunkituta azaldu zen arbitzuarra: "Oso kontzentratuta jokatu dut, partidaren ardura hartu dut eta garaipena azken urteetan egingandako lan handiari esker izan da" azaldu zuen.

Beste finalerdian, Jokin Altunak 22 eta 16 irabazi zion Bengoetxea VI.ari. Horrela, azaroaren 18an Nafarroa Arenan jokatu den final handian Altuna III.a izango du aurkari Ezkurdiak.

Ikusmina handia da, finaleko sarrerak berehala saldu ziren atzo, eta bi pilotariak finala prestatzen ari dira buru belarri.

Gazteen Lau T'erdia

Nafarroako Gazteen Lau t'erdiko Txapelketa edo Guillermo Mazo Memorialean, Arañak (Irurtzun) 18 eta 9 irabazi zion Aiaperi (Ardoi) eta Loiarlek (Erreka) 18 eta 5 hartu zuen menpean Berastegi (Irurtzun).

SASKIBALOA CBASK-ek ezin izan zion liderrari irabazi

Autonomien Arteko 2. Mailako Ligako 5. jardunaldian, CBASK Altsasu Saskibaloi Taldeak Sagnacio Rioja liderra izan zuen aurkari. Azkenean, liderrak 57 eta 77 irabazi zion CBASK-i. Sagnacio Riojak jarraitzen du lider (9 puntu) eta CBASK 5.a da (7 puntu). Bihar, Iruñeko San Ignacio taldearen kontra jokatu du CBASK-ek, Iruñean.

MENDIA Errioxara, Sakanako Mendizaleekin

Sakanako Mendizaleak taldeak prest dauka azaroko irteera. Azaroaren 18an Errioxara joko dute, Nieva de Cameros eta Angiano arteko mendi ibilbidea egitera. Autobusa goizeko 6:00etan aterako da Irurtzundik. Azaroaren 15a baino lehen eman behar da izena, herrietako arduradunei esanez edo 639 117 631 telefonora hots eginez.



Sakanako Harri Jasotze Eskolako kideen erakustaldia, Sakanako Herri Kirol Jaialdian. ARTXIBOA

Harri jasotzailea izan nahi duzu?

HARRI JASOTZEA Sakanako Harri Jasotze Eskola eta Zentru Teknikoa Mikel Lasartek kudeatuko du, Irurtzunen. Azaroaren 13an hasiko dira eskolak eta izena ematea zabalik dago, Mank-eko Kirol Zerbitzuan

Harri jasotzean trebatu nahi dutenek gurean badute aukera. Beste behin, ateak zabalduko ditu Sakanako Herri Jasotze Eskola eta Zentru Teknikoak. Sakanan edo inguruan bizi eta harri jasotzean aritu edo hasi nahi dutenek eman dezakete izena, 16 urtetik gorakoek.

Sakanako Harri Jasotze Eskola eta Zentru Teknikoa 2004/2005 denboraldian sortu zen, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak bulkatuta. Helburua herri kirolak sustatzea eta, zehazki, harri jasotzean trebatu nahi dutenei bitartekoak ematea da. Izan ere, harri jasotzean, aizkoran edo antzeko kirolean trebatzea zaila izaten da halako

kirolean aritzen den senitartekorik ez dutenendako, materiala lortzea eta irakasleak lortzea konplikatu baita. Zailtasun horiei irtenbidea emateko sortu zen Sakanako Harri Jasotze eskola eta zentru teknikoa. 2004 urtetik makina bat sakandar, larraundar eta iruindar pasatu da bertatik.

Hasieratik Irurtzunen bizi den Mikel Lasarte harri jasotzaileak du eskolaren ardura eta aurten ere bera izango da monitorea. Asteartetan emango dira klaseak, 18:30etik 20:00etara, Irurtzunen. Azaroaren 13an hasiko dira klaseak, ekainera arte luzatuko direnak. Behin izena emanda, derrigorrezkoa izango da klase-

ra joatea. Klaseak euskaraz izango dira, eta norbaitek euskaraz ez badaki, hari gazteleraz zuzenduko zaio monitorea.

Harri jasotzea ez omen da gehienok pentsatzen dugun bezain gogorra. Hori dio Mikel Lasartek. Askotan teknika garrantzitsuagoa omen da indarra baino. Sekretu horiek guztiak irakasten ditu Sakanako Harri Jasotze Eskolan, eta kirol honetan interesa duten guztiei bertara jotzera animatu ditu.

Izena emateko azken egunak

Izena ematea Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan egin behar da (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.eus).

Santanderren gustura

BTT Mank-ek, Barranka Txirrindulari Taldearen eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz, BTT ibilbide zoragarria antolatu zuen igandean Santanderren. Las Llanas, Santanderreko badia, Magdalena jauregia, Sardinero hondartza, Cabo Mayor eta Las Marucas kostan ibili ziren (35 km). 13 sakandarrek osatu zuten ibilbidea, tartean 7 emakumek.



BARRANKA T.T



Sakanako Herri Lasterketa-Burundesa Sari Nagusiko irteera.

Gomez eta Gil nagusi Olaztin

ATLETISMOA XVIII. Sakanako Herri Lasterketa-Burundesa Sari Nagusian 70 korrikalari aritu ziren proba nagusian eta beste horrenbeste kategoria txikietan. 19 sakandarrek osatu zuten proba nagusia eta Iban Gonzalez eta Izaskun Gil izan ziren azkarrenak

Larunbatekoa egun elegantea zen korrika egiteko. Eguraldi freskoa, baina eguzkitsua eta ateri. Sakanako Mankomunitateak hainbat babesleren laguntzarekin antolatutako XVIII. Sakanako Herri Lasterketa-Burundesa Sari Nagusia zegoen jokoan. Hasteko, kategoria txikiko lasterketak jokatu ziren, 16:00etan, eta ondoren proba nagusia abiatu zen (7,5 km). 70 korrikalari aritu ziren proba nagusian, eta beste horrenbeste kategoria txikietan. Aipatzekoa da Olaztiko lasterketa Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak sarirako baliagarria zela.

Gilen eta Beunzaren arteko lehia estua

Proba nagusian, Olaztiko kaleetan barna prestatutako zirkuituari 3 buelta eman behar izan zizkieten korrikalariak (7,5 km).

Raul Gomez zubietarrak aurrea hartu zuen eta bakar-bakarrak heldu zen helmugara (21:59), Jon Ander Cabero gipuzkoarrari 14 segundo aterata (22:13). Hirugarrena Beteluko Xabier Satrustegi sartu zen (22:49).

Emakumezkoetan, aldiz, Sakanako Herri Lasterketako iazko garaileak eta iazko bigarrenak, Cabanillaseko Aitana Gilek eta Olaztiko Izaskun Beunzak, lehia oso estua izan zuten, aurreko urtean Uharteko Arakilen bezala. Aurten, Olaztin, elkarrekin iritsi ziren helmugara, Aitana Gil buru zela (26:04). Izaskun Beun-

HELDUEN MAILAKO PROBA 19 SAKANDARREK OSATU ZUTEN, GONZALEZ ETA BEUNZA BURU ZIRELA

zak denbora bera egin zuen, bigarrena (26:04) eta Usabalgo Oihana Ortizek osatu zuen podiuma (26:34).

Guztira 19 sakandarrek lortu zuten proba nagusia bukatzea. Gizonezkoetan azkarrena Iban Gonzalez urdiaindarra izan zen, helmugan bosgarrena (23:33), eta emakumezkoetan Izaskun Beunza (26:04). Raul Audikana (23:59) eta Izaskun Beunza izan ziren lehen olaztiarrak.

Kadete guztiak elkarrekin podiumean

Kadeteak nagusiekin aritu ziren eta zirkuituari bi buelta eman zizkieten, 5 km osatuz. Bost mutilek hartu zuten parte kadete mailan eta bostak elkarrekin igo ziren podiumera, haiek eskatuta. Manex Zufiaurre etxarriarra, Aitor Augusto altsasuarra, Adrian Martinez lakuntza-

rra, Xabi Ieregi arbizuarra eta Bassir Said olaztiarra izan ziren. Beteranoei dagokienez, 35 eta 49 urteko mailan Raul Gomez eta Ana Cruz Oiarzabal izan ziren lehenak, 50 eta 59 urte arteko mailan Francisco Javier Gomez gailendu zen eta ez zen emakumerik aritu, eta 60 urte-tik gorako mailan Gotzon Auzmendi eta Angela Gonzalez izan ziren onenak.

Sakanako Herri Lasterketa atletismo proba bat baino gehiago da. Mank-eko Kirol Zerbitzuaz gain, Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak ere parte hartzen du antolakuntzan, eta izaera soziala duen proba izan nahi du. Mankomunitatean ere errefuxiatuen gaia lantzen denez, gai hori lasterketara eman zen. Horrela, Maksim magoaren ikuskizunarekin hasi zen Olaztiko atletismoaren festa, eta probak jokatu bitartean errefuxiatuei buruzko informazioa eta haien testigantzen berri jasotzeko aukera izan zen Olaztin, Mank-eko Kulturartekotasun Zerbitzuak, Sakana Harrera Harana eta HELPNA taldeek jarritako mahaletan. Aipatzekoa da ere Errefuxiatuen Aldeko Oinezko Martxa ere helduen probarekin batera abiatu zela. Kasu honetan, Olaztiko zirkuituari buelta bat eman zioten (2,5 km), oinez.

Auzate bikaina, jatorri ugarikoa

Proba bukatuta, auzate bikainaz gozatzeko aukera izan zuten Sakanako Herri Lasterketan parte hartu zuten korrikalari guztiek, helduek, gaztetxoek eta Errefuxiatuen Aldeko Oinezko Martxan parte hartu zutenek. Bertako ohiko produktuez gain, Marokoko eta Siriako jaki goxoak dastatzeko aukera izan zuten. Sari ematean, podiumera igo zirenek bertako produktuak jaso zituzten eta, horretaz gain, antolakuntzak afari-bazkariak, tratamenduak, kamisetak, bertako produktuak eta beste zozketatu zituen.

Balorazioa

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuko teknikari Amaia

SAKANAKO LASTERKETA IGANDEKO BEHOBIA PRESTATZEKO PROBA APROPOSA DA

Sakandarrak

XVIII. Sakanako Herri Lasterketa-Burundesa Saria

Gizonak

1.Raul Gomez (Zubieta)	21:59
5.Iban Gonzalez (Urd)	23:33
6.Alberto Martinez (Lak)	23:35
7.Jon Otermin (Alts)	23:39
11.J.C. Gomez (Alts)	23:54
12.Raul Audikana (Olaz)	23:59
13.Joxeja Maiza (Etx)	24:00
14.Ivan Sobredo (Alts)	24:03
17.Javi Gasanz (Alts)	24:43
18.Fco. J. Gomez (Alts)	25:15
19.Jorge Azanza (Zior)	25:15
21.Iñaki Alvaro (Alts)	25:56
22.Fran Araña (Arb)	25:58
38.Santi Agirre (Iturm)	28:54
44.Juantxo Azurmendi (Alts)	29:38
57.Iñigo Orella (Etx)	33:15
66.Xabier Ramirez de Alda (Alts)	44:04

Emakumeak

24.Aitana Gil (Cabanillas)	26:04
25.Izaskun Beunza (Olaz)	26:04
39.Erkuden S. Martin (Etx)	28:54
62.Ainhoa Markinez (Olaz)	36:00

Gerrikagoitiak Sakanako Herri Lasterketa-Burundesa Sari Nagusiko balorazio positiboa egin du. "Ikusita egun berean Iruñean Harresien Lasterketa jokatzeko zela eta Altsasun "Utzi Altsasu bakean" manifestazioa deituta zegoela, pozik gaude partaide-tzarekin, helduen proban 70 kide eta kategoria txikietan beste horrenbeste aritu zirelako. Aldiz, Errefuxiatuen Aldeko Martxan ez zen parte-hartze handia egon; ildo honetan, badugu hobetzeko" azaldu du teknikariak.

Halaber, Olaztin sortutako giro polita azpimarratu zuen. "Olaztin bildu zen jendartean aniztasun handia zegoen, eta auzatea berezia izan zen, hemengo ohiko jakiez gain, marokarrek eta siriarrak prestatutako jakiak baitzeuden. Frontoian oso giro polita sortu zen" gaineratu du. Azkenik, esker oneko hitzak izan ditu laguntzailendako. "Olaztiko Udala, Suteki kluba eta Santa Ana elkarteko ordezkariak laguntza eskertu nahi dut, babesleen laguntzarekin batera, euren laguntzarik gabe lasterketa ez baitzen posible izango" aitortu du teknikariak.



MARTIN EARLY

Josu Etxeberria Rural Kutxara

TXIRRINDULARITZA Josu Etxeberria txirrindulari iturmendiarrak Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakandarrarekin egingo du salto afizionatuetara. Aralar Klubarekin junior mailan bikain ibili da Etxeberria. Aurten, esaterako, Iruñeko eta Gipuzkoako Itzuliak irabazi ditu eta Espainiako selekzioarekin Zlineko Europako Txapelketetan eta Innsbruckeko Mundialetan aritu da.



Txikonek eta bere espedizioko kideek ezin izan zuten helburua bete. ALEX TXIKON

Alex Txikon: Everesten atzera egitea ausardia denean

MENDIA “Everest, un reto sobrehumano” dokumentala ekarriko du Txikonek gaur, 19:00etan, Altsasura

Everesta neguan oxigeno artifizialik gabe igotzea. Hori izan zen Alex Txikon mendizalearen aurreko neguko erronka. Erronka oso zaila, zalantzarik gabe, bere bigarren ekinaldia baitzen.

Otsailaren 23an 3. akanpalekura igotzea lortu zuten, baina eguraldi iragarpenak okerrera egin zuen. Hala ere, eutsi zuten eta 4. akanpalekura igotzen hasi ziren otsailaren 24an. Hurrengo egunean, otsailaren 25ean, erabaki latza bezain ausarta hartu behar izan zuten Alex Txikonek, Ali Sadparak eta Temba Bothek: atzera egitea.

Dokumentala eta hitzaldia

Alex Txikon “Everest, un reto sobrehumano” dokumentala erakustera etorriko da gaur, azaroaren 9an, Altsasuko Iortia Kultur Gunera, 19:00etan. Katealde Artesanos enpresak, Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak eta Altsasuko Udalak gonbidatuta aurkeztuko du Txikonek bere lana.

Dokumentala bukatzen denean, solasaldia izango da eta bildutakoek Everesteko ekinaldiaz nahi adina galdera egin ahalko dizkiote Bizkaiko mendizale handiari.

Igandeko Behobia-Donostiari begira

ATLETISMOA 30.775 korrikalari daude izena emanda Behobia Donostian, tartean makina bat sakandar. “Eginez aldatu mundua” leloa du probak, emakumezkoak parte-hartzaileen erdia izatera heltzeko aldaketa soziala iradokitzen duena

Igandean jokatu da Behobia-Donostia. Herri lasterketa eza-gunaren 54. edizioa izango da aurtengoa eta asteartean eman zituzten proba honi lotutako zenbaki erraldoiak. 30.775 korrikalarik eman dute izena, aurreko urtean baino 137 gutxiago. Tartean daude korrikalari sakandar ugari. Bosgarren aldia da jarraian korrikalari kopuruak 30.000ren muga gainditu duela. Izandako jaitsiera txikia batez ere Gipuzkoako eta inguruko korrikalarien artean eman da. “Lasterketa kopurua gora egiten ari da eta horrek zerikusia izan du jaitsieran. Baina kopuruari eutsi egin diogu eta pozik gaude” azaldu zuen Behobiako koordinatzaile Inigo Etxeberriak.

Izena eman duten 30.775 korrikalarietatik %24,48 emakumezkoak dira, 7.534. Antolakuntzatik emakumeen parte-hartzea sustatzen jarraitu nahi dute, eta, ildo honetan, antolakuntzak 50/50 egitasmoaren berri eman zuen: 2025ean korrikalarien erdia emakumezkoak izatea dute helburu. “Hori lortzea ahalbidetuko duen aldaketa soziala bulkatu nahi dugu. Horregatik jarri diogu aurtengo lasterketari *Eginez aldatu mundua* leloa” aipatu zuen Fortuna klub antolatzailerako Arantza Rojok.

Ibilbidea ohikoa izango da: Behobiatik abiatu eta Donostiako Bulebarrean amaituko da, 20 km osatuta. Goizeko 09:45ean urritasunen bat duten 87 parte-hartzaileak abiatuko dira, 9:50ean 214 irristalariak ekingo diote probari eta korrikalarien irteera 10:15ean izango da. 18 taldetan banatuta ekingo diote probari korrikalariak, dortsalaren kolorea kontuan hartuta. Lasterkariak laguntzen 29 erbi arituko dira eta ibilbidean 7 hornidura gune eta 13 animazio gune izango dira. Lasterketa uzteko 23 toki prestatu ditu antolakuntzak.



30.000 korrikalariaren muga gaindituko du, beste behin, proba ezagunak. ARTXIBOA

AURREKO URTEAN 68 SAKANDARREK OSATU ZUTEN PROBA; MERCEROK BERE 31. BEHOBIA EGIN ZUEN

Antolakuntzak adierazi duenez, proba irabazteko hautagaien artean daude aurreko urteko bi garaileak, Carles Castilleko eta Aroa Merino. Haiekin batera Jaume Leiva, Ivan Fernandez, Iraitz Arrospide eta Diana Martin dira faborito nagusiak.

Behobia Txikia eta Gaztea

Bezperan, larunbatean, Behobia Txikia jokatu da Anoetako estadio txikian, 15:00etatik hasita. 12 urte bitarteko 2.500 haurrendako tokia jarriko du antolakuntzak. Eta Behobia Gaztea (4,5 km), aldiz, igandean jokatu da. 09:45ean abiatuko da proba, Herrera auzotik, eta 248 nerabek eman dute izena.

Aurten, lasterketaren azoka ez da Donostian egingo, Irungo Ficoban baizik, ostiralean eta larunbatean. 35 erakusmahai egongo dira.

Sakandarrak

Aurreko urtean, 2017an, 68 sakandarrek lortu zuten Behobia eta Donostia lotzea, eta Egoitz Karrion irurtzundarra (1:15:30) eta Erkuden San Martin etxarriarra (1:31:29) izan ziren azkarrenak. Aipatzekoa da Joxemari Mercero beterano unaurrak bere 31. Behobia-Donostia osatu zuela 78 urterekin.

Entrenatzen

Aurten ere makina bat sakandar animatuko dira Behobia osatzera. Azken hilabeteetan ohikoa izan da Sakanako errepide eta bideetatik korrikalariak entrenatzen ikustea. Horietatik asko aurreko larunbatean Iruñean aritu ziren, Harresien Lasterketan. Guztira 4.026 korrikalarik parte hartu zuten, hiru distantzian: 15 km, 10 km eta 5 km, eta sakandar askok osatu zuten gauean Iruñeko harresi eta Gotorlekuan barna jokatuako proba ikusgarria. Beste askok Olaztin jokatuako Sakanako Herri Lasterketan parte hartu zuten eta horrela, guztiak, behar bezala prestatuta iritsiko dira igandeko Behobia-Donostia zita garrantzitsura.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@
guaixe.eus

OSTIRALA 9

ALTSASU Txantxarri ludotekaren 25. urteurrena. Gure aitona amonen jolasak.
16:00etatik 18:00etara, ludotekan.

ALTSASU Gazte agenda. Gozamenetz zentzumen ibilaldia, gynkana, murala margotzea eta dastatze beroa.
18:00etan, Intxostiapunta.

ALTSASU Liburutegiak, aterpe naturalak. Ilustrazio tailerra. Morkots.
18:00etan, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ Euskaraldiaren azalpen saioa.
18:30ean, kultur etxean.

ETXEBERRI Aixita gazteluaren historia eta berreskuratzearen inguruko hitzaldia. Hizlaria: Iñaki Sagredo.
19:00etan, elkartean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian.
19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.

ALTSASU Euskaraldia prestatzeko batzar irekia.
19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

ALTSASU Alex Txikonon filmaren aurkezpena eta hitzaldia.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

ETXARRI ARANATZ Antzerkia: Etxeko saltsak.
22:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Ola de crímenes filma.
22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 10

ALTSASU Lanerako gaitasun pertsonalak tailerra.
10:00etatik 14:00etara, Intxostiapunta.

BAKAIKU Nolako Bakaiku nahi dugu? Bilera irekia, haurtzaindegiarekin.
17:30ean, udaletxean.

LAKUNTZA Euskaraldiaren informazio puntua, izen ematea eta material salmenta.
17:00etatik 19:00etara, plazan.

IRURTZUN 3zpa4 ikuskizuna. Pikuxar.
17:30ean, kiroldegian.

OLAZTI La banda del jefe Bigun eta Los de Rayo taldeen kontzertua.
18:00etan, plazan (euriarekin frontoian).

ALTSASU Gazte agenda. Bizkotxada.
18:00etan, Intxostiapunta.

LAKUNTZA Aukerak antzezlan.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Camut Band taldearen Moments Camut ikuskizuna.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Arkada, Egurre, Alkaloide eta Orangutan room taldeen Hodei Ijurkorekin elkartasunezko kontzertua.
20:00etatik aurrera, gaztetxean.

IGANDEA 11

ALTSASU Arleze kobazulora 53 km-ko ibilbidea eginen dute Barrankako mendi atalekoek.
08:30ean, Urbasako portuaren hasieran.

UHARTE ARAKIL Poesia errezitala: Mercedes Viñuela, Tomas Yerro, Maisa Barasoin, Alfonso Muro, Blanca Arrizabalaga eta Mikel Auzmendi gitarran.
18:00etan, Donibane jubilatuen elkartean.

LAKUNTZA Begoña Olabideren eta Javier Bergiaren kontzertua.
18:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Gazte agenda. Partxis/Oka jolasa.

18:00etan, Intxostiapunta.

ALTSASU Ola de crímenes filma.
19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 12

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak.
19:00ean, udaletxearen parean.

ASTEARTEA 13

ALTSASU Pentsio eta gizarte segurantzaren oraingo eta etorkizuneko inguruko hitzaldia. Hizlaria: Mikel de la Fuente EHuko irakasle erretiratu.
18:00etan, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 14

URDIAIN Liburutegiak, aterpe naturalak. Ehun urtetik gorako haritzak haurrendako tailerra. Bletx.
18:00etan, liburutegian.

ARBIZU Udazkeneko km-0 sukaldaritza tailerrak. Euskal txerri haragiarekin menu dotorea.
19:00etan, Argi-Bidean elkartean.

ETXARRI A. Liburutegiak, aterpe naturalak. Etxarri Aranazko toponimia hitzaldia. Jose Luis Erdozia.
19:00etan, liburutegian.

OSTEGUNA 15

ZIORDIA Liburutegiak, aterpen naturalak. Udazkeneko altxorrek eskulan tailerra.
18:00etan, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ Liburutegiak, aterpen naturalak. Haurrendako birziklatze tailerra.
19:00etan, liburutegian.

ALTSASU Bohemian Rhapsody filmaren emanaldia.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ZORION AGURRAK



Ioar
Zorionak ioar!!!
Jarraitu hain alaia
izaten. Muxu pila Olatz,
aita eta amaren partez.



OLAZTI Liburutegiak, aterpe naturalak. Zenbait artisten Urbasari buruzko pintura erakusketa.

Azaroaren 30 arte. Astelehenetik ostiralera 16:30etik 20:30era, liburutegian.

ALTSASU Juanjo Lopez Azurmendi argazkilaria eta bidaiariaren 'Bidaian' argazki erakusketa.

Azaroaren 9tik azaroaren 25era.
Astelehenetik ostiraletara
18:30etik 21:00etara, larunbatetan
18:30etik aurrera eta igandetan
16:00etatik 20:30era, lortian



IRAGARKI SAILKATUAK

Utzubar ind. (Etxarri A.)
500m2ko
nabea salgai,
639 334 688

IKASTAROAK
Lanerako gaitasun pertsonalak: Altsasuko Udako Gazteria Zerbitzuak antolatuta du eta plaza librean daude. Azaroaren 10ean eta 24an da. Matrikulak 15 euro balio du.

MUSIKA
Instrumentu bat jotzen ikasi nahi duzu? Egin proba baxuarekin! Ez da beharrezkoa musika ikasketak izatea, gogoia bakarrik. Adin guztiendako. Luisillo 617 723 297

HIGIEZINAK
SALGAI
Etxarri Aranatz Utzubar txiki poligonoa 500m2ko nabea salgai, 639 334 688

LEHIAKETAK
GAZTEWOOD. Altsasuko gaztearen III. Film laburren txapelketa. Gehienez 15 minutu. Lanak MP4 formatuan, DVDan edo pendrivean aurkeztu behar dira 2019ko martxoaren 19a baino lehen. Informazio gehiagorako gazteewood@gmail.com edo sare sozialetan gazteewood profilean.

OHARRAK
Itzaletik argira eguna Etxarri Aranatz. Azaroaren 10ean ospatuko da. Bazkarirako txartelak Xapateron eta Leku Onan eskuratu daitezke.

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko bitokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilera.

GoiEner. Iruñeko helbide berria: Kale Berría 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hileroko 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

OPATUTAKOAK/ GALDUTAKOAK
OPATUTAKOAK
ERLOJUA ALTSASUN. Esferaren atzeko aldean MR hizkiak eta 22-6-53 eta 22-6-78 datak ditu idatzia. Longines markakoa. Galdu duenak Guaixe astekarira hots egin dezala, 948 564 275

www.iragarkilaburak.eus



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarr.com
www.dekovenavarr.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA

**Gerardo Larrañaga Ondarra**

"Izar berri bat piztutzero zoaz
Bakaikuko zeru gainean"

Lakuntzako familia
Bakaikun, 2018ko azaroaren 9an

ESKELA

**Gerardo Larrañaga Ondarra**

Agur osaba,
ez zaitugu ahaztuko!

Bakaikuko ilobak
Bakaikun, 2018ko azaroaren 5ean

ESKERTZA

**Gerardo Larrañaga Ondarra**

Larrañaga Flores familiaren partez
Eskerrak eman nahi dizkizuegu momentu gogor
hauetan gure ondoan egon zaretenei. Eskerrik asko ere
herriko erizain eta medikuari emandako laguntzagatik.

Datorren igandean, azaroaren 11an, 12:30ean bere omenez
meza egonen da Bakaikuko San Juan Bautista elizan

ESKELA

**Milagros Gorospe Galbete**

(Mitxel Agirre Gorospe Juntakidearen ama)

Urak dakarrena
urak daroa,
zuk emandakoa
gurekin gelditzen da.

**Iñigo Aritza ikastolako guraso, irakasle,
ikasle eta langileak**

ESKELA

Manuel Goñi Insausti

2018ko urriaren 27an hil zen Arrigorriagan, 99 urte zituela

"Beti gu biyotzetan yonko za"

Datorren igandean, azaroaren 11n, eguerdiko 12:00tan Etxarri
Aranazko elizan bere arimaren alde elizkizuna izango da

Zu familiye
Etxarri Aranatz - Arrigorriaga, 2018ko azaroaren 9an

URTEURRENA

**Mikel Arregi Marin**

XXXIX. urteurrena
Lakuntzan, 2018ko azaroaren 11n

Zure irrifarra, zure alaitasuna
gure artean bizirik.

Zure familia

EZKONTZAK

• **Aitana Abaigar Saenz eta Eneko Guerra Iraola**,
azaroaren 2an Irurtzunen

HERIOTZAK

• **Milagros Gorospe Galbete**, azaroaren 4an Olaztin
• **Gerardo Larrañaga Ondarra**, azaroaren 4an Bakaikun
• **Migel Martiarena Gorriti**, azaroaren 4an Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU
NAHIEZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

URTEURRENA

**Mikel Arregi Marin**

XXXIX. urteurrena

Egiaren bidean, askatasuna amets

Lakuntzako Ezker Abertzalea
2018ko azaroaren 11n

**IZARRA**

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com



tanatorioak
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”



948 19 70 70



@Grupolrache



Grupolrache

www.tanatoriosirache.es



3zpa4 taldeko partaideak. UTZITAKOA

Telebistatik Irurtzango kiroldegiko agertokira

3zpa4 taldearen emanaldia izanen da bihar, azaroaren 10ean, larunbata, 17:30ean, Irurtzango kiroldegian

IRURTZUN

Eitb3 telebista kateko gazteei zuzendutako saioa da 3zpa4 telesaila. Musika talde bat osatu nahi duten lau lagun biziaren kontaketa ditu. Jon, Maider, Amets eta Izaro dira telesailako protagonistak, eta bihar Irurtzunen egonen dira 3zpa4 ikuskizunean. Emanaldia kiroldegian izanen da, 17:30ean.

Lau gazteek musika talde bat osatu nahi dute; haien ametsa da. Horretarako, Maiderren aitona entsegurako toki bat utzi die. Taldea sortzeko izan dituzten trabak, peripeziak, egonezi-

nak, poztasunak eta abar erakusten dituzte bideo kanal baten bidez.

Telesailaren edukia jarraituz 3zpa4 ikuskizuna sortu dute.

Ikuskizuna

Jon, Maider, Amets eta Izaro gazteak dira ikuskizunaren protagonistak ere, eta haiekin dantzatu eta abesteko aukera dago ikuskizunean telebista saioko musika emanaldiak egiten baitira. Gainera, karaoke tarte bat dago ere. 3zpa4 ikuskizuna Pikuxar Euskara Txokoak antolatuta du Sanmartin festen harira.

'Bidaian' argazki erakusketa mustuko dute gaur, lortian

Bidaiak, natura eta argazkilaritza uztartu ditu Juanjo Lopez Azurmendik *Bidaian* erakusketan. 2009tik 2017era egindako 37 argazki biltzen ditu. Gai nagusia natura da: paisaien kolorea, konposizioa eta argia. Azaroaren 9tik 25era izanen da erakusketa Iortia kultur gunean, astelehenean ostiralera 18:30etik 21:00era, larunbatetan 18:00etatik aurrera eta igandetan 16:00etatik 20:30era. Bidaia egiteko etxetik atera zenetik itzuli zen arteko hartutako argazkiak erakusten ditu: Urbasa-Andia parke naturala, Jaizkibel, Pirinioak, Dolomitak, Venezuela, Nepal, Maroko, Asturias eta Ulibarri-Ganboa urtegia.

Etxeko sekretuak agertokian plazaratzen direnean

Komedia egiteko modu asko daude, baina normalean, ohikoena, pertsonaiak egoera korapilatsuetan jartzea da. Hori da Etxeko saltsak antzezlanen gertatzen dena. Etxarri Arantzen izanen da emanaldia gaur, azaroaren 9an, ostiralera, 22:00etan. Bikote baten arteko sekretuak kontaketa endreduzko komedia honek. Antzezlanaren jatorrizko izenburua *Relativity speaking* da. Alan Ayckbourn antzerkigile ospetsuak idatzi zuen. Euskarazko bertsiotan Begoña Bilbaok hartu du zuzendaritza lana. Aitziber Garmendia, Ana Gabarain, Miren Gojenola, Mikel Laskurain eta Aitor Fernandez dira aktoreak.



XII. Poesia errezitala, 2017an.

"Barruan daukaguna" kanporatzeko errezitala

Uharte Arakilgo Donibane jubilatuta elkarteko aretoan poesia errezitala egingen dute hamahirugarrenez

UHARTE ARAKIL

Mercerdes Viñuela, Tomas Yerro, Marisa Barasoain, Alfonso Muro eta Blanca Arrizabalaga idazleak dira eta poesia egiten dute. "Barruan dutena kanporatzeko" erabiltzen dute poesia, Blanca Arrizabalaga uhartearakildarrak adierazi bezala. Idatzitako hori errezitatuko dute igandean, azaroaren 11n, Donibane jubilatuta elkarteko aretoan. 18:00etan izanen da emanaldia. Mikel Auzmendi musikari etxarriarrak gitarrarekin lagunduko du errezitala.

Poesia errezitala duela 13 urte sortu zen, Mercedes Viñuela idazlearen liburu bat aurkeztu zutenean. "Mercedes Viñuela idazle topaketa batean ezagutu nuen, eta lagunak egin ginen. Liburu aurkeztu behar zuen eta jubilatuen elkartean aukera polita izanen zela pentsatu nuen". Liburuaren aurkezpena egin zuten, beraz, jubilatuen elkartean. Harrera oso ona izan zenez, urtero errepikatzea erabaki zuten.

Parte hartuko duten idazleek errezitalerako propio sortutako poesiak aurkeztuko dituzte. "Bakoitzak zazpi bat poesia prestatzen ditu. Barruan duguna kanporatzen dugu poesiaren bidez". Errezitala amaituta otamena izanen da.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO

Dirua aurrez dezakegu kremak gure herriko botiketean erosiz!

Askotan ikusten ditugu mirarizko kremak iragartzen dituzten iragarki ikaragarriak, eta hauek, gehienetan, prezio oso altuak dituzte. Baina gure botiketean dauden produktuek ez dituzte zertan inbidiatu behar.

Hona hemen dermatologo eta makillatzaileek gehien gomendatzen dituzten produktuak:

- Homeoplasmine: botika homeopatikoa da, hau erabiltzen da azala suminduta dagoenean. Eguzkia hartu ondoren ere jartzea gomendagarria da, ezpainak sendatzeko eta hidratatzeko ere erabiltzen da.
- Repavar: ampolla indargarriak, C bitaminadunak argitasuna emateko eta neke zeinuak xahutzeko.
- Lansinoh: krema hau lanoninaz eginda dago, bere funtzio nagusia edoskitze garaian dauden amentzat da, bularretan erabiltzen da. Baina niretzat merkatuan dagoen baselina hoberenatarikoa da, ezpain berriak uzten ditu.
- "Agua Termal de Avene": nik jada ez dakit hau gabe bizitzen, udan errefreskatzeko beharrezkoa dut eta neguan egun guziko makillajea freskatzeko edo ma-

killajea finkatzeko. Edozein "agua termal" izan daiteke.

- Topicream: gorputzerako da krema hau, ultrahidratantea. Azal lehorrentzako eta sentikorrentzat, honi esker berehala prestatuko zara (oso azkar xurgatzen du azalak) eta beti azal suabeaz gozatu dezakezu.

- Biopel: umeen babeserako da, baina pertsona askok erabiltzen dute ezpainetako baltsamo bezala. Makillatzaile askok ere ezpainetako eta masailtarako erabiltzen dute, argitasun natural bat lortzeko.

- Letibalm: sudur eta ezpainetarako baltsamoa, ikaragarria da ezpainak margotu baina lehen prestatzeko. Baina beste erabilpen bat ere badauka, aurpegian agertzen diren orban gorriak ere sendatzen laguntzen du.

- Bepanthol: normala da gau txarra izatea edo gutxi lo egitea, hori dela eta begi gorriekin esnatzen gara, horretarako Bepanthol erabiltzea gomendatzen dizuet, begiendako hidratazioa da eta horrela kolore naturala bueltatzea laguntzen du. (Lentillak daramazuenak botikan galdetu, ze hauek ezin dira lentillekin erabili.)

- Bioderma: duela urte bat hasi nintzen produktu hau erabiltzen eta orain maiteminduta nauka, azala oso ongi uzten du, garbi eta suabe. Bi aldiz pasata agur makillaje guztia.

Herrian erosiz, herria bizi mantenduko dugu!

Camut Band-aren ikuskizun "dinamikoa eta dibertigarria"

'Momets Camut' ikuskizuna izanen da bihar, azaroaren 10ean, larunbata, Iortia kultur gunean, 19:30ean

ALTSASU

1990. urtean sortu zuten Camut Band Rafael eta Luis Mendez dantzariak eta koreografoak eta Toñi Español dantza eta musika afrikarreko kideak. Hortaz, klakea, dantzak eta doinu afrikarrak uztartzen ditu taldeak. Bihar, Altsasun, *Momets Camut* ikuskizuna egingen dute, Iortia kultur gunean, 19:30ean. Camut Band-aren koreografia ikusgarrienak biltzen ditu emanaldiak.

Uduaren doinua jarraituz arearen gainean egindako koreografia, erritmoarekin egindako

umorea, dantzaren bidez egindako interakzioa eta danborren gainean dantzatutako klakea dira ikuskizunaren uneetako bakan batzuk. Camut Band-aren ikuskizunak berrasmatu dituzte eta teknologikoki eta musikalki hobetu dituzte *Moments Camut* ikuskizunean.

Zenbait momentuetan klakea ikuskizunaren protagonista bihurtzen da. Zapatekin sortutako soinuak zutenean egindako musikarekin uztartzen da, emanaldi "dinamikoa, dibertigarria eta zirrargarria" sortuz.



Javier Bergia eta Begoña Olavide musikariak. UTZITAKOA

Antzerkia eta musika emanaldia Lakuntzako asteburuan

Kultur etxeak bi ikuskizun hartuko ditu: 'Aukerak' antzezlana, bihar, eta kontzertu akustikoa, igandean

LAKUNTZA

Azaroarekin batera aurkeztu zen Lakuntzako udaleko kultur egitaraua. Musika, antzerkia, magia ikuskizuna eta beste hainbat ekimen prestatu ditu udazkeneko hilabete honetan egiteko. Hortaz, asteburu honetan bi emanaldi antolatuko ditu. Bihar, azaroaren 10ean, *Aukerak* antzezlana izanen da, 19:00etan, kultur etxean. Igandean, azaroaren 11n, Begoña Olavide eta Javier Bergia musikarien kontzertu akustikoa izanen da, 18:30ean, kultur etxean. Sarreren prezioa 5 eurokoa da helduendako eta euro batekoa haurrentakoa.

Esperientzia bakar batek sor ditzakeen sentimenduak, erreakzioa eta loturak aztertzen ditu *Aukerak* antzezlana. Arterko antzerki konpainiak antzezlana intimoa aurkezten du, norberaren eta besteen arteko harrema-

nez, loturez eta desberdintasunez hausnartzen duena. Nerea Atxa eta Feli Txabarri dira aktoreak. *Aukerak* antzezlana bihar izanen da Lakuntzan, azaroaren 10ean, 19:00etan.

Musika akustikoa

Begoña Olavide eta Javier Bergia ibilbide handiko musikariak dira. Elkarrekin bi disko kale-ratu dituzte, *De un tiempo a esta parte* (2014) eta *Burlesco* (2016). Hala ere, diskografia handiena bakarka egindako lanean dute. Izan ere, biak dira ikus-entzuzkoetan oso ezagunak. Igandean, azaroaren 11n, kontzertu akustikoa eskainiko dute Lakuntzako kultur etxean.

Javier Bergia 1980ko hamarkadan hasi zen lanean. Hainbat abeslari ospetsuen letrak idatzi ditu Bergiak. Begoña Olavide musika andalusi-arabiarrean aditua da.

Bideoak eta dantza batzen dituen festibala

Zinetika bideo eta dantza jaialdiaren 3. edizioa izanen da azaroaren 15etik 21era Iruñean, Donostian eta Bilbon. Laida Aldaz artista etxarriarrak zuzentzen du festibala. Guztira 22 film proiektatuko dira lau sail desberdinetan

ETXARRI ARANATZ

Zinemaren eta dantzaren arteko harremanak ikertzen ditu Zinetika festibalak. 3. urtez antolatu du Laida Aldaz etxarriarrak festibala. Zinetika Iruñean hasi zen, eta urteekin zabaltzen hasi zen. Hortaz, iaz Iruñean eta Donostian egin zen eta, aurren, egoitza berri bat gehitu da: Bilbo. Azaroaren 15etik 21era izanen da jaialdia. 22 film proiektatuko dira lau sailetan, bi masterclass eta bi performance izanen dira ere jaialdiak iraun bitartean.

Zinemak eta dantzak hainbat gauza dituzte komunean. Nagusia biak arteak direla da. Gainera, biek asko transmititzen dute. Hortaz, bi diziplinak elkartzen direnean hitzik esan gabe, mugimenduaren bidez, asko esan daiteke. Hori da, hain zuzen, Zinetika jaialdiak erakutsi nahi duena. Gainera, Laida Aldaz jaialdiko zuzendariak azaldu duenez, kalitate handiko lanak aurkeztu dira.

Zinetika jaialdia handituz joan da. Iruñean hasi zen eta dagoneko hiru hiriburutan egingen da: Iruñeko Kondestable jauregian, Donostiako Tabakalera eta Bilboko BilbaoArten eta La Fundizionen. Denborarekin ere atal berriak sortu dira. Lau dira



2017ko Zinetika jaialdiaren performance bat. UTZITAKOA

Zinetika 3. edizioaren atalak: Sail ofiziala, Open Screen, Zinetiks eta Dokumentalak. Gainera, mugimendua eta zinema uztartzen duten bi masterclass eta bi performance izanen dira ere.

Azaroaren 15ean, ostegunean, hasiko da Zinetika bideo eta dantza jaialdia Iruñean. Patxi Araujo artistaren masterclass-arekin hasiko da festibala, eta, 20:00etatik aurrera, filmen proiektzioa izanen da.

Guztira 22 film proiektatuko dira. Sail Ofizial lehiaketara sei film sailkatu dira: *Otherland*,

Strophe, *Banana Blue*, *Shivta*, *Scalamare* eta *The Evil*. *Sail Ofizialean* film onenari eta zuzendari onenari sariak emanen dira.

Jaialdian lehiaketan sartu ez diren kalitate handiko filmak aurkeztu dira, eta horiek Open Screen atalean sailkatu dituzte. Gainera, "puntako" filmak proiektatuko dituzte Zinetiks atalean. Mugimenduaren bitartez edozein gaia jorratu daitekeela erakusteko Dokumentalak atalean gizarzte gaiak eta aktualitateko gaiak plazaratuko dituzte.

Manez eta Kobreak kontzertua

Antolatzaileak:

berria

BADOK

Mank

Laguntzaileak:

Nafarroako Gobernua | Gobierno de Navarra

Ahaztu Otsa

Azaroak 17 larunbata 19:30

Altsasu Iortia Kultur Gunea

Sarrerak:

Aurretik, 10€ (BERRIAlagunek 8€)

Egunean, 12€ (BERRIAlagunek 10€ - txartelarekin)

Sarrerak salgai:

BERRIAN: Berria.eus/berrialaguna/denda helbidean edo 943 30 43 45 telefonora deituz.

Iortia Kultur Gunean eta www.iortiakultura.com helbidean



Eneida Carreño Mundiñano, Beleixe irratiko denboraldi berrian gidari izanen da.

"Entzumenarekin mundua irudika daiteke"

XX. urteurrenaren atarian hasiko du Beleixe irratia denboraldi berria. Eneida Carreño Mundiñano izanen da gidaria. Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:00etara Sakanako informazioa zabalduko du uhinen bidez, euskaraz

Erkuden RB ETXARRI ARANATZ

1 Beleixe irratia denboraldi berria hasiko da. Berrikuntzarik?

Berrikuntza, ez. Duela urte batzuk martxan geneukan Beleixe itzuliko dela esango nuke. Eguneko informazioa ekarriko dugu goizeko 10:00etatik 12:00ak bitarte. Urte batzuetan irratia gutxieneko baldintzetan izan

dugu eta bada garaia Sakanak irratia euskaldun bat izanda bizirik mantentzeko ahalegina egiteko. Guaixe Fundazioak egoki jo du aurten horretan indarrak jartzea.

2 Zein da Beleixeren bertute nagusia?

Sakanako informazioa euskaraz zabaltzen duen irratia bakarra

gara. Sakanako edozeinengandik gertu gaude, sakandarrekin osatutako irratia gara.

3 Zein da helburua?

Sakanan unean uneko informazioa goizetik eta euskaraz zabaltzea. Irrati batek duen berehalako ahalmena baliatu: euskaldunak gure hizkuntzan informatuak izan, belarriprestak

ahobizi izan daitezen lagundu, euskarazko komunikabidea ahaldundu, komunitatea indartu...

4 Zer nolako edukia eskainiko du?

Goizean goizetik prentsaren azalak aztertu, eguraldiaren iragarpena, agenda, eguneko albisteak eta solasaldia gaurkotasuneko gaiekin Esan Erran eta Aralar irratiko esatariekin. Tartean egunero elkarrizketa bat edo bi izango ditugu. Irratian zerbait esateko duen orok parte har dezake, euskaraz bada.

5 Internet-arekin informatzeko modua aldatu da. Nola moldatu da Beleixe irratia?

Beleixe irratia aspaldi ari zen on-line emititzen *guaixe.eus* orrialdetik, baina eguneko programaziorik ez geneukan. Gaur egun, leku askotan internet bidezko irratia entzuteko aukera daukagu eta espero dugu gaurtik Beleixe irratia txoko horietako batzuetan bederen entzutea.

6 Zer dauka irratia berezia egiten duen?

Sekula itxi behar ez zen komunikabide bat da Beleixe. Irratiak unean-uneko informazioa modu natural batean eskaintzen duela iruditzen zait. Bakoitza garen bezala, hitz egiten dugun bezala adierazteko gune bat da. Batekotasuna lantzen du, hizkuntza formaletik ihes egiten du, eta zuzeneko komunikazioa bultzatzen du. Entzumenarekin bakarrik mundua irudika dezakezu irratien uhinen bidez.

7 Nola izan ziren irratia denboraldi berriaren hasierak?

Ez naiz egokiena honi buruz ezer esateko baina esango nizu-

ke oso baliabide gutxirekin abiatu zirela. Datorren urtean 20 urte beteko ditu Beleixe irratia, eta beste egoitza batean hasi zen. Etxarriko Kultur Etxeko beheko solairu batean hasi ziren, eliz kortan. Geroxeago gaur egungo lekura lekualdatu zen, udaletxeko estalopeko gela batera.

8 Zer suposatzen du zuretzat irratia?

Niretzat irratia nire hastapenetara itzultzea suposatzen du, hor hasi nintzen ni lanean etxe honetan eta urte batzuren bultzatzen beste zeregin batzuetan ibili naiz eta ibiliko naiz, noski. Pozik nago tarte txiki batean, behintzat, itzuliko naizelako. Espero dut entzuleak ere hori sentitzea! Libre sentiarazten nau, bere xarma berezia du zu mikrofono aurrean egoteak.

9 Sare sozialetan egonen da?

Noski, gaur egun hortik kanpo bizitzea zaila litzateke.

10 Nola ikusten duzu goizero irratia egitearen erronka?

Niretzako erronka polita izango da, denbora gehiago eskaintzea gustatuko litzaiguke, baina une honetan bi orduko saioarekin abiatuko gara, eta gero gerokoak. Nik uste dut Sakanan ezin dela euskarazko irratia bat gabe egon.

11 Nori zuzendutako saioa izanen da?

Edozeinendako izanen dela uste dut. Edozeinek har badezake parte, horrek esan nahi du gai oso ezberdinak jorratuko ditugula, beraz, edozeinek parte hartu nahi badu, iritziak eman, lagundu... hor izango gaitu.

Bazkide zoroketa

Lasterleko sariak:

1. SARIA:
EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:
DONOSTIAKO AQUARIUM MUSEOA:
SARRERA BANA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN